

# CJ

## BIDEZKO MERKATARITZAKO KOADERNOA

6 Alea | 2016eko maiatza

**BIDEZKO  
MERKATARITZA:  
MUGIMENDU  
BATEN  
GORAKADA**

**#BIDEZKO  
MERKATARITZA  
NAIZ  
ETA ZU?**



COORDINADORA ESTATAL DE  
**COMERCIO JUSTO**

**Argitalpena:** Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea([www.comerciojusto.org](http://www.comerciojusto.org))

**Erredakzioa:** Punto y Coma ([www.puntoycomar.org](http://www.puntoycomar.org)) eta Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea

**Itzulpena:** Mondo Agit

**Argazkiak:** Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordinakundearen Artxiba; Bakerako Lankidetzeta Batzarra; Fair Trade Advocacy Office; Fairtrade International; IDEAS; International Labour Organization [Crozet M]; José Luis Casuso; La-tenda de tot el Món; Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea (WFTO).

**Maketazioa:** Masgráfica  
*Madril, 2016eko maiatza*

Lan hau Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 3.0 Unported (CC BY-NC-SA 3.0). Lizentzia batekin babestuta dago.  
Lizentziaren kopia bat ikusteko, zoaz <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/legalcode> webgunera.



Koaderno hau, eta kokatzen den kanpaina Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak (AECID) finantzaturako proiektu baten zati bat da. Argitalpenukia horren egileen erantzukizuna izango da soilik eta ez du derrigorrez AECID-en iritzirik adieraziko.



# AURKIBIDEA

	<b>AURKEZPENA</b>	<b>5</b>
<b>1</b>	<b>BIDEZKO MERKATARITZA NAZIOARTEAN</b>	<b>6</b>
	<b>Bidezko Merkataritzaren Irizpideak</b>	<b>8</b>
	<b>Historia laburki</b>	<b>10</b>
<b>2</b>	<b>MERKATARITZA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO</b>	<b>14</b>
	<b>Merkaturatzea</b>	<b>14</b>
	Ekoizleak	14
	Inportatzaileak	20
	Dendak	21
	Kontsumitzaileak	25
	Berme-zigiluak	27
	<b>Gizarte mobilizazioa</b>	<b>29</b>
	<b>Eragina</b>	<b>30</b>
<b>3</b>	<b>NOLA ANTOLATZEN GAREN</b>	<b>32</b>
<b>4</b>	<b>EGIN BAT BIDEZKO MERKATARITZAREKIN!</b>	<b>35</b>



# AURKEZPENA

**B**idezko Merkataritza mugimendu heldua da dagoeneko. 50ko hamarkadan jaio zen nazioartean desparekotasunaren eta pobreziaaren aurka borroka egiteko eta merkatal-praktika justuen bidez garapena sustatzeko helburuarekin. Mende erdi beranduago sare sendo bat osatzeko gai izan da mundu osoan, ekoizten duten 2000 erakunde, 500 banatzaile eta espezializatutako 4000 denda baino gehiagorekin, ziurtatze-erakundeez eta nazioarteko erakunde erregulatzailenez gain.

Bidezko Merkataritzaren nazioarteko sarearen barruan Afrika, Asia, Amerika Latindarra eta Karibeko 75 herrialdetan banatuta dauden 2.000 erakunde-ekoizle daude eta 2 milioi pertsonen lan egiten dute bertan. Horietatik, lautik hiru erakunde arduratzen dira elikadura-ekoizpenaz eta kotoia bezalako lehengaiez. Afrikan milioi bat pertsonen egiten du lan Bidezko Merkataritzan, beraz ordezkaritza gehien duen kontinentea da munduan hedatuen dagoen Bidezko Merkataritzako erakunde-ziurtatzailea den Fairtrade International erakundearen datuen arabera.

Bestalde, Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen arabera, 250 enpresa inguruk egiten du lan ehungintzan eta artisautza produktuetan. Horietako %75a Afrikan eta Asian kokatzen dira eta langile gehienak emakumeak dira.

Eragin ekonomikoaren ikuspuntutik, Bidezko Merkataritzako salmentek 2014 urtean 5900 milioi dolarrera iritsi ziren Fairtrade International erakundearen ziurtagiria duten produktuak kontuan hartuta soilik. Diru-sarrera hauek erakundeetan lan egiten duten pertsonentzat eta haien familientzat bideratzen dira neurri handi batean, soldata duin eta egonkorra jasotzen baitute eta beren diru-sarrera ez dago merkatuak jasaten dituen aldaketan edo espekula-

zioaren menpe. Bidezko Merkataritzak beste eragin positibo batzuk ere baditu, ingurumenean (lurra, ura eta bioaniztasuna zaintzea, kaltegarriak diren praktikak uztea, nekazaritza ekologikoa sustatzea), antolakuntza politikoan (eredu demokratiko, parte-hartzaile eta gardenak aplikatzea) eta inguruan, primarekin (ekoizleek jasotzen duten diru kopuru gehigarria) hezkuntza, osasun, gizarte eta azpiegitura proiektuak garatzen dituztelako. 2014an bidezko Merkataritzak 95 milioi dolar banatu zituen primetan.

Espanian, aurtan, Bidezko Merkataritzak bere 30. urteurrena betetzen du Donostian eta Kordoban lehen dendak ireki zirenetik. Gaur egun Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordinakundeko erakundeek kudeatzen dituzten 140 denda eta saltoki espezializatu daude. Gainera, produktuak txikikazko beste establezimenduetan, merkatalguneetan eta ostalaritza-kateetan ere aurki daitezke. 2014ko salmentak 33,2 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urtekoak baino %8 gehiago. Sektoreko erakundeetan 150 pertsonen egiten dute lan eta 2500 baino gehiago ari dira boluntario gisa laguntzen, %80a emakumeak. Agian ez gara Europako beste herrialde batzuetan bezalako mugimendu garatu eta heldua, baina gure tokia lortu dugu herrialde honetako gizarte ekonomia solidarioaren barruan.

Laburbilduz, egunero #Somos Comercio Justo garenon pertsona kopurua handitzen da, eta hau da dokumentu honek islatu nahi duena: geroz eta gehiago garela eta mugimenduan jendea sartzen jarraitu nahi dugula. Jarraitu irakurtzen eta nor garen, gure esku hartze irizpideak eta Bidezko Merkataritzako Hegoaldeko erkidegoetako bizitzan duen eragina ezagutuko duzu. Koaderno hau irakurtzen auzitean, zu ere, munduko hainbat pertsona moduan, Bidezko Merkataritza izango zarela espero dugu. ●

# 1

# BIDEZKO MERKATARITZA NAZIOARTEAN

**E**Nazioarteko merkataritzan merkatu librearen logikak agintzen du. Lehiakortasuna eta ahalik eta etekin ekonomiko handienari lehentasuna ematen dio pertsonen eskubideen, lan-baldintzen eta ingurunea zaintzearen aurretik. Sistema honek desberdintasun sakonak sortzen ditu.

Garapenerako Nazio Batuen Programaren azken Txostenaren (PNUD)<sup>1</sup> araberramillioika pertsona daude pobrezian oraindik eta desberdintasunak areagotuz doaz. Munduko biztanleriaren %1ak mundu osoko aberastasunaren erdia du eta %80ak berriz, aberastasun horren %6a besterik ez dute banatzen. Gainera pobreak diren 830 milioi langile daude, hau da, egunean 2 dolar baino gutxiagorekin bizi direnak eta 1.500 pertsonen lan-baldintza duin eta seguruak ez dituzten enpleguetan lan egiten dute.

Bestalde, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE)<sup>2</sup> kalkulatu du mundu osoko 21 milioi pertsona inguruk egiten dituela derrigorrezko lanak, esklabutza egoera berdinean daude, eta horietatik 4,5 milioi emakumezkoen salerosketaren biktima direla, lanean eta sexualki esplotatuak izateko helburuarekin.

**E**rakunde horren arabera ere<sup>3</sup> haurren enplegua 168 milioi neska-mutikok jasaten du eta horien erdiak lan arriskutsuak egiten dituzte.

Mundu mailan emakumeek lan-orduen %67a baino gehiago egin arren, munduko diru-sarreraren %10a besterik ez dute irabazten eta munduko ondasunen %1a besterik ez dute<sup>4</sup>. Emakumeek gizonek baino



© INTERNATIONAL LABOUR ORGANIZATION (CROZET M)

1. PNUD. *Giza-garapenari buruzko txostena, 2015.*

[www.undp.org/content/undp/es/home/librarypage/hdr/2015-human-development-report.html](http://www.undp.org/content/undp/es/home/librarypage/hdr/2015-human-development-report.html)

2. LNE. [www.ilo.org/global/topics/forced-labour/lang-es/index.htm](http://www.ilo.org/global/topics/forced-labour/lang-es/index.htm)

3. LNE. [www.ilo.org/global/topics/child-labour/lang-es/index.htm](http://www.ilo.org/global/topics/child-labour/lang-es/index.htm)

4. Fair Trade Advocacy Office-k [www.fairtrade-advocacy.org/fair-trade-and-the-eu/women-trade](http://www.fairtrade-advocacy.org/fair-trade-and-the-eu/women-trade) webgunean aipatutako Nazio Batuen datuak.

%24 gutxiago irabazten dute<sup>5</sup>. Nazio Batuen arabera berriz, munduko pobrezia %70a emakumeetan aurkitzen da<sup>6</sup>. Pobrezian bizi diren herrialde askotan, milioika familia bizi dira kafea, kakaoa, azukrea eta kotoia bezalako lehengaien ustiapenetik, baina irabazten dituzten soldatekin ezin dira beren lanetik modu duin batean bizi. Beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak etengabe aldatzen dira, nazioarteko merkatuen gorabeherak direla eta, lehengaiak, elikadurarekin lotutakoek ere, nazioarteko poltsetan kotizatzen baitute, Londresen edo New Yorken, eta bertan zehazten dira haien prezioak.

Ikus dezagun kakaoaren adibidea. 1980tik aurrera kakaoaren prezioa asko jaitsi zen, 20 urte beranduago bere hasierako balioaren laurden batean kokatuz. Berrito igo zen arren, gaur egun kakaoaren prezioa duela hiru hamarkadakoarenaren erdia da. Beheranzko joera honez gain, ia egunero ematen dira prezio aldaketak. Ziurtasun-gabezia larria sortzen duen aldakortasuna hain zuzen ere. Horri

**Munduko  
biztanleriaren  
%1ak mundu osoko  
aberastasunaren erdia  
du eta %80ak berriz,  
aberastasun horren  
%6a besterik ez dute  
banatzen**

gehitu behar zaio ekoizleen eskuetara iristen den azken-prezioaren portzentajea ere murrizten joan dela: gaur egun txokolatina baten prezioaren %3 eta %6 artean besterik ez dute jasotzen eta duela hamarkada batzuk, portzentaje hori %16koa zen<sup>7</sup>. Guzti horren ondorioak oso latzak dira kakao lantzen duten pertsonentzat, beren ekoizpenaren salmentagatik jasotzen dituzten diru-sarrerak murrizten joan direlako denborekin, jasotzen dituzten soldata baxuek pobrezia atariaren azpitik kokatzen dituelarik.

Egoera berdinean aurkitzen dira huskeria baten truke esportazio baldintzetan fabriketan eta tailerretan lan egiten duten milioika gizon eta emakume ere<sup>8</sup>. Ehungintzaren sektorea adibide adierazgarria da. Produktzioaren deslokalizazioak diru-soldata baxuak eta len-eskubideekiko eta ingurumenaren babesarekiko errespetu gutxi dagoen herrialdeetara eraman du jantzigintza.

Bidezko Merkataritza, beste gizarte-mugimendu batzuk bezala, biztanleriaren zati handi bat baztertzen, pobrezia



© INTERNATIONAL LABOUR ORGANIZATION (CROZET M)

5. Ibidem.

6. Hegoa-Euskal Herriko Unibertsitatea. Ekintza Humanitario eta Garapenerako Lankidetzako Hiztegia. [www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/99](http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/99)

7. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2014). Bidezko Merkataritzaren koaderno. Kakaoari buruzko monografikoa 4. zk. [comerciojusto.org/wp-content/uploads/2014/04/Cuaderno-cast.pdf](http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2014/04/Cuaderno-cast.pdf)

8. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2015). Bidezko Merkataritzaren koaderno. Ehungintzari buruzko monografikoa 5. zk. [comerciojusto.org/wp-content/uploads/2015/05/CUADERNO-TEXTIL-CASTELLANO.pdf](http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2015/05/CUADERNO-TEXTIL-CASTELLANO.pdf)

sortzen eta desberdintasunak areagotzen duen sistema ekonomiko eta komertzial honi alternatibak bilatzeko beharretik jaio da.

Hori dela eta, Bidezko Merkataritzaren mugimendua nazioarteko mugimendu zabalago baten zati bat da, ah da, gizarte ekonomiarena eta laguntasunarena hain zuzen ere. Mugimendu horiekin partekatzen du sistema ekonomikoa eta merkatal-arau bidegabeak eraldatzeko borroka, merkatal alternatiba justu, bideragarri eta jasagarri bat eskainiz, gizarteari zein ingurumenari dagokionez. Urteetan zehar, ekoizpena eta merkataritza pertsonen zerbitzura dauden

eredu gisa indarra hartzen joan da, kaltetutako herrien garapena ahalbidetuz.

## ■ BIDEZKO MERKATARITZAREN IRIZPIDEAK

Bidezko Merkataritzan ezinbestekoa da ekoizleekin dugun harremana. Batak bestearekiko errespetuan eta harreman justua eta gizarte-baldintzen hobekuntza errazten duten irizpideetan oinarritzen da. Bidezko Merkataritzako erakundeek nazioartean hitzartu zituzten eratzten dute Bidezko Merkataritzaren Irizpideen Gutuna<sup>9</sup> honako hauek dira:

# BIDEZKO MERKATARITZAREN 10 IRIZPIDEAK



9. Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea (WFTO). *Bidezko merkataritzaren 10 irizpideak*. [wfto-la.org/comercio-justo/wfto/10-principios/](http://wfto-la.org/comercio-justo/wfto/10-principios/)



## “PREZIO JUSTU BAT JASOTZEN DUGU”

Norma Mora, MCCH erakundeko koodinatzailea. Ecuador<sup>10</sup>

“Bidezko Merkataritzaren bitartez saltzen dugunean, prezio justu bat jasotzen dugu, merezi duguna ordaintzen digute eta duintasunarekin merkaturatu dezakegu. Batzuetan ohizko merkatuetara joaten garenean, lapurtzen gaituzten eta engainatzen gaituzten susmoa dugu eta gure produktuak ez dituzte baloratzen. Bidezko Merkataritzari esker, gure diru-sarrerak hobetzeaz gain, ekoizteko eta saltzeko merkatu bat dugu, produkzioa ateratzean salduko ez den, edo merkatuak jasaten dituen gorabeherak direla eta, oparitu behar izatearen beldurrik eduki gabe”.



© ARCHIVO CEC

## “FAMILIEN BIZI-KALITATEA HOBETZEN DUGU”

Ivania Calderón, CECOCAFEN erakundeko kafe-soroko langilea Nicaragua<sup>11</sup>

“Merkataritza arruntean kafea saltzen dionak merkaturatzaileari ematen dio kafe hori eta ez du salmenta egiteko unean jasotzen duen dirua baino mozkin gehiago jasoko. Bestalde, Bidezko Merkataritzarekin, arreta tekniko eta trebakuntzaz gain, prima ere eskaintzen dugu. Aurreko uztan 10 dolar gehiago jaso genituen kintal/urrko. Aurten 20 dolar gehiago izango ditugu. Modu honetan familien eta langileen bizitza kalitatea eta errepideak bezalako azpiegiturako hobetuko ditugu”.



© IVANIA CALDERÓN A TRAVÉS DE LA TENDA DE TOTELMÓN

*Bidezko Merkataritza elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarritutako merkatal-sistema da. Nazioarteko merkataritzan berdintasun handiagoa bilatzen duena gizarte eta ingurumen irizpideak nabarmenduz. Garapen jasagarria sustatzen du merkatal baldintza hobek eskainiz eta bereziki He-goaldeko ekoizle eta langile pobreenen eskubideak ziurtatuz.*

**Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea**

Azkenik Bidezko Merkataritza mugimenduaren helburu nagusia irizpide hauek betetzen dituzten produktuak eskaintzeaz gain, hauek kalitatezko produktuak izatea da. Xede horretarako hobekuntza jarraitu prozesuak ezartzen dira hornidura kate guztian, modu honetan pertsonen eskubideak eta ingurumenaren errespetua sustatuz produktuak egiten dituztenentzat eta kontsumitzaileentzat.

**Azkenik Bidezko  
Merkataritza  
mugimenduaren helburu  
nagusia irizpide hauek betetzen  
dituzten produktuak eskaintzeaz  
gain, hauek kalitatezko  
produktuak izatea da**

10. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2014). “Ekonomia solidarioaren mugimendu handi bat gara”. [comerciojusto.org/somos-un-gran-movimiento-de-la-economia-solidaria/](http://comerciojusto.org/somos-un-gran-movimiento-de-la-economia-solidaria/)

11. Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordinakundea (2012). “Pertsona guztiak jasoko dute onura kooperatibako kide ez izan arren”. [comerciojusto.org/el-beneficio-llega-a-todas-personas-aunque-no-sean-miembros-de-la-cooperativa/](http://comerciojusto.org/el-beneficio-llega-a-todas-personas-aunque-no-sean-miembros-de-la-cooperativa/)

## HISTORIA LABURKI

Bigarren Mundu Gerra eta gero, AEB buru, potentzia ekonomiko handien garaipenarekin munduko ordena ekonomiko berri bat sortu zen, mendebaldeko potentzia handientzat eta bertako enpresentzat merkatu-kuota handiagoak edukitzeko diseinatuta. Hortik sortu ziren Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtsa, eta merkataritza mailan GATT. Iparraldeak, Iparralde gisa Lurreko hemisferio horretan kokatzen diren potentzia ekonomikoen taldea hartuz, bere enpresetako merkatal interesak babesten ditu erakunde horien bidez eta mundu osoan inposatu dute beren logika ekonomikoa. Egoera horren ondorio latzenak jasotzen dituztenak Hegoaldeko herrialdeak dira, Hegoalde gisa pobrezian bizi diren eta negoziatzeko botere eskasa

duten herrialdeak hartuz, eta beren merkatuak gehiago irekitzeko eskatzen zaie.

Jar ditzagun adibide pare bat. Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza erakundearen arabera (FAO)<sup>12</sup>, AEBko kotoiaren industriak jasotzen dituen diru-laguntza zuzenak desagertuko balira, produktu honen prezioa %11 batean igoko litzake, eta honek eragin zuzena izango zuten Afrikan kotoiaz bizirauten duten hamar milioi pertsona baino gehiagoren bizitzan. Bestalde, Merkataritzari eta Garapenari Buruzko Nazio Batuen Konferentziaren (UNCTAD) arabera, ehungintza eta jantzigintza sektoreko neurri diskriminatzaile guztiak deuseztatuko balira enplegua %20 eta 40 artean areagotuko zen Eurosur garapen bidean dauden herrialdeetan.[www.eurosur.org/EFTA/c1.htm](http://www.eurosur.org/EFTA/c1.htm)<sup>13</sup>.



Boliviako Ordezkariek UNCTADen 1964ko Konferentzian.

© NACIONES UNIDAS

12. FAO. Herrialde aberatsetan dagoen kotoiaren subsidioak mundu osoan prezio baxuak egongo direla esan nahi du. [www.fao.org/newsroom/es/focus/2005/89746/article\\_89759es.html](http://www.fao.org/newsroom/es/focus/2005/89746/article_89759es.html)

13. Eurosur. [www.eurosur.org/EFTA/c1.htm](http://www.eurosur.org/EFTA/c1.htm)

Merkatal harreman bidegabe hauek pobrezia eta desberdintasuna sortzen dute, eta 40 eta 50ko hamarkadetan Estatu Batuetan hasi zen Bidezko Merkataritza mugimenduaren jatorrian daude. Egin dezagun ibilbide txiki bat mugimenduaren eboluzioaren une garrantzitsuenak gogoratzuz<sup>14</sup>:

- 1945ean Ten Thousand Villages (aurretik Self Help Crafts izenekoa) Puerto Ricoko brodatuak erosten hasi zen eta beste erakunde bat, SERRV, Hegoaldeko erkidegoetan egindako artisautza gaiak saltzen hasi zen. Artisanu hauek asko nazioarteko merkatuan zeuden prezio baxuen, mozkin altuen eta bitartekoezkin zegoen menpekotasunaren aurka borrokan ari zi-

ren. Merkataritza solidario modu berri honetan beren produktorako diru-sarrerara egokiak, beharrezkoak ez ziren bitartekariak saihesteko eta nazioarteko merkatuetan sartzeko aukera ikusi zuten..

- 1958an Estatu Batuetan Bidezko Merkataritzaren lehenengo denda ireki zen.
- 1964an Hegoaldeko herrialdeek “merkataritza, eta ez laguntza” lelopean merkatal-lege justuagoak eskatzen hasi ziren Genevan ospatutako UNCTAD-en Batzar nagusian. Urte berean, Oxfam GKE-k merkatal konpainia propioa sortu zuen, Oxfam Trading.

## BIDEZKO MERKATARITZAREN HISTORIAKO TO GERTAERA GOGOANGARRI



14. Bidezko Merkataritzaren funtsak. Bidezko Merkataritza mugimendua Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea. [comerciojusto.org/wp-content/uploads/2011/10/EI\\_ABC\\_del\\_CJ\\_2.pdf](http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2011/10/EI_ABC_del_CJ_2.pdf)

## 1958an Estatu Batuetan Bidezko Merkataritzaren lehenengo denda ireki zen

- 1969an Estatu Batuetan Bidezko Merkataritzaren lehenengo denda ireki zuen Herbeheretan.
- Hurrengo bi hamarkadetan, 60koan eta 70ekoan, Bidezko Merkataritzako ekoizpen erakundeak sortzen hasi ziren Afrikan, Amerika Latindarrean eta Asian.
- 1973an Guatemalako Bidezko Merkataritzako lehen kafea inportatu zen “Indio Solidarity Coffee” izenarekin. Orduraino, salmentak artisautza produktuak izan ziren batik bat.
- 80ko hamarkadan Bidezko Merkataritzako erakundeen nazioarteko lehen sareak sortu ziren.
- 1988an Herbeheretan sortu zen lehen berme zigilua, Max Havelaar.
- 1989an Merkataritza Alternatiboa sustatzen duten 40 Erakunde Merkataritza Alternatiboaren Nazioarteko Federazioa sortu zuten (IFAT, ingelesezko siglak). Hura izan zen ondoren Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea izango zenaren hazia.
- 1990ean Europako 11 inportatzailek Bidezko Merkataritzako Europako Elkartea (EFTA, ingelesezko siglak) sortu zuten<sup>15</sup>.
- 1994 Munduko Denden Europako Sarea sortu zen (NEWS, ingelesezko siglak).
- 1997an ziurtapen nazionalen ekimen desberdina bateratu eta Fairtrade Labelling Organizations International (FLO) sortu zen Fairtrade Zigilu berria ahalbidetuz.
- 1998an FLO, IFAT, NEWS eta EFTA erakundeek FINE, sortu zuten. Erakundearen izena siglekin osatzen da eta bere helburu nagusia eragin politikoa da.
- 2001ean Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna izendatu zen.
- 2004an FINE erakundea FTAO (Fair Trade Advocacy Office) bilakatu zen, egoitza Bruselan duen Bidezko Merkataritza Mugimenduaren Eragin Politikoa eragintza bulegoa.
- 2006an Europako Parlamentuak Bidezko Merkataritza pobrezia desagerrarazteko eta garapen jasangarria sustatzeko baliozko tresna zela adierazten zuen bidezko merkataritza eta garapenari buruzko ebazpen bat onartu zuen.
- 2009an IFAT eta NEWS erakundeek bat egin zuten eta Bidezko Merkataritzako Mundu Erakundea sortu zuten (WFTO, ingelesezko siglak).
- 2010ean Eskualdeen Batzordeak Bidezko Merkataritzak garapen jasangarrian duen eragina azpimarratzen duen txosten bat onartu zuen.
- 2014an Europako parlamentuak kontratazio publikorako Zuzendaritza Bidezko Merkataritza sartzeko ebazpen bat onartu zuen.
- 2016ko otsailean WFTO-k Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen ziurtagiri Zigilua aurkeztu zuen<sup>16</sup>.

15. Kocken, Marlike. “Indarrak bateratuz Bidezko Merkataritzatik”, *El Comercio Justo en España 2012*, CECJ, Madrid, 2013.

[comerciojusto.org/wp-content/uploads/2013/08/articulo-EFTA.pdf](http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2013/08/articulo-EFTA.pdf)

16. Zuzendaritza indargabetzen duen kontratazio publikoari buruzko 2014ko otsailak 26ko EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014/24/UE ZUZENTARAUUA 2014.3.28. L 94/65 [www.eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32014L0024&from=es](http://www.eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32014L0024&from=es)

## MUGIMENDUAREN EBOLUZIOA ESPAINIAN

Bidezko Merkataritza 1986an sortu zen Espainian. Espezializatutako lehen bi dendak Donostian, Emaús-en eskutik eta Kordoban, Sandino kooperatibaren eskutik (gaur egun IDEAS bilakatuta) ireki ziren.

Pixkanaka, eta batez ere 90ko hamarkadan, Espainiako Bidezko Merkataritza mugimendua gaur egun osatzen duten ia erakunde gehienak sortu ziren. Gaur egun 140 denda eta salmenta puntu kudeatzen dira. Belar-dendak, produktu ekologikoen dendak, supermerkatuak, merkatalguneak, ostalaritza eta Bidezko Merkataritzaren ziurtagiria duten produktuak banatzen dituduztenenpresa ugari bat egin dutelarik mugimenduarekin.

Denden garapenarekin batera, 90ko hamarkadan dendek Bidezko Merkataritzaren inguruko sentsibilizazio eta hedapen lan handia egin zuten. Halaber, Bidezko Merkataritza sustatzeko lege berriak sortzera zuzendutako eragin politikoa izango zuten ekimenak egin ziren.

Hauek dira mugimenduak Espainian izan dituen une gogoangarrietako batzuk:

- **1986an** Estatu Espainoleko lehen dendak ireki ziren, bata Donostian eta bestea Kordoban, Emaús fundazioaren eta Sandino Kooperatibaren (gaur egun IDEAS), eskutik.
- 80ko hamarkada amaieran eta 90eko hasieran sortu ziren Bidezko Merkataritzako erakunde asko eta ekintzak egiten hasi ziren mugimendu gisa eratzeko.
- **1995ean** Alternativa3-k bereziki Bidezko Merkataritzari eskainitako txigorgailua inauguratu zuen.
- **1996an** sektoreko antolatzaileek Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordinakundea sortu zuten esfortzuak bateratzeko eta mugimendua indartzeko helburuarekin.
- 2000 urtean SETEM erakundeak salmenten lehen azterketa egin zuen. 7 milioi eurotako fakturazioa atera zen. Erosketen ia %70a Bidezko Merkataritzako dendetan egin zen eta erdia artisautza gaietara zegoen.
- **2000** urtean ere, Oxfam Intermón-ek lehen kafe-paleta saldu zion banaketa-kate handi bati, modu honetan beste salmenta puntu batzuetarako hedapenari ekinez.
- **2005-ean** Fairtrade España sortu zen (gaur egun Fairtrade Ibérica), Fairtrade Internationalen barruko Bidezko Merkataritza zigilua duen erakundea, hain zuzen.
- **2008an** ziurtatutako produktuen hedapena indartu zen enpresetan eta banaketa eta ostalaritza kate garrantzitsuetan.
- **2014an** Bidezko Merkataritzaren salmentak 33,2 milioi eurokoak izan ziren.
- Gaur egun 150 pertsonak egiten dute lan sektorean eta 2.500 baino gehiago dabilta borondate gisa laguntzen.

# 2

# MERKATARITZA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO

**B**idezko Merkataritza produktu jakin batzuen ekoizpe-nera eta merkaturatzera aplikatzen diren irizpide etiko batzuen multzoa baino askoz ere gehiago da. Gizartea aldatzeko borrokan ari den nazioarteko mugimendua da. Uneko sistema ekonomikoa arautzen duten merkatalle-ge bidegabeak salatuz eta gizarte-, ekonomia-, eta ingurugiro-justizia irizpideetan oinarritzen den eredu alternatibo bat proposatuz. Horretarako, hiru ardatzetan lan egiten da aldi berean: merkaturatzea, mobilizazio soziala eta eragina.

## ■ MERKATURATZEA

Orokorrean ekoizleen eta kontsumitzaileen artean bi kate-begi besterik ez daude: inportatzaileak eta dendak. Posible da baita ere jatorrizko herrialdean ekoizle-erakunde txikien salmentak batzen dituz-

ten esportatzaileak egotea eta helmuga-herrialdean ere banatzaileak egotea. Edozein kasutan, Bidezko Merkataritzan, hornidura-katea ahalik eta motzena da, beharrezkoak ez diren bitartekariak saihestuz.

## EKOIZLEAK

Bidezko Merkataritza osatzen duten ekoizleen erakunde desberdinek komunean duten ezaugarrietako bat da Bidezko Merkataritzaren Gutuneko Irizpideak jarraitzen dituztela da. Ekoizle-erakundeak WFTO-ko kide izan daitezke, edo nahiago badute, erakunde honen mundu mailan aintzat hartzen dituen zigiluetako batekin ziurtatu dezakete beren ekoizpena. Edozein kasutan, nazioartean ezarritako irizpide guztiak bete beharko dituzte. Hori bermatzeko monitoretza eta ebaluazio sistema desberdinak ezarri dira.



1

## EKOIZLEAK

Gaur egun Afrika, Asia, Amerika Latindarra eta Karibeko 75 herrialdetan banatuta dauden 2.000 erakunde-ekoizle daude eta, 2 milioi langilek eta ekoizlek eta horien familiek eta erkidegoek ateratzen dute onura horietaz. Kontinenteka, Bidezko Merkataritzatik onura gehien ateratzen duena Afrika da.



## INPORTATZAILEAK

Munduan 500 erakunde-inportatzaile baino gehiago daude. Ekoizleei gaiak erosi eta denden eskura ezartzen dituzten erakundeak dira. Ekoizleekin duten harremanean adosten dituzte prezioak, aurre-finantzaketa ematen diete eta merkatu berrietara sartzeko gaien inguruan aholkularitza eskaintzen diete. Gainera produktuak garrantziaz eta banatzeaz ere arduratzen dira. Zenbait kasutan Bidezko Merkataritzako osagai desberdinak nahastuz elikagaiak egiten dituzte.

2

## BIDEZKO MERKATARITZAREN ZIRKULUA

Bidezko Merkataritzan, **hornidura-katea** ahalik eta motzena da, beharrezkoak ez diren bitartekariak saihestuz, grafiko honetan ikus daitekeen moduan. Bertan merkaturatze prozesuan esku-hartzen duten lau eragile nagusi identifika ditzakegu.



## KONTSUMITZAILEAK

Makina funtzionarazten dutenak dira. Bidezko Merkataritza kontsumo erantzule baten irizpideetan sartzean, kontsumitzaileak bilakatzen dira kate honetako azken katebegia, gutxietsitako tokietan bizi diren pertsonen bizitza duin bat bermatzen dien ekoizpen eta banaketa sistemetan erosketak egiten baitituzte.

4

## DENDAK

Munduan 4.000 denda baino gehiago daude, eta bertan lana egiten duen gehiengoa borondatez ari da. Gizartearekiko eta ingurunearekiko modu justu batean ekoiztutako produktuak merkaturatzeaz gain, dendak dira "Bidezko Merkataritza mugimenduaren bihotza", izan ere, erreferentziazko espazioak bilakatu dira mobilizazio eta salaketa kanpainetan parte hartzeko orduan.



3

**Gaur egun Afrika, Asia, Amerika Latindarra eta Karibeko 75 herrialdetan banatuta dauden 2.000 erakunde-ekoizle daude eta, 2 milioi langilek eta ekoizlek eta horien familiek eta erkidegoek ateratzen dute onura horietaz<sup>17</sup>.**

Horietatik, 250 inguru artisauen erakundeak dira eta Afrikan eta Asian kokatzen dira batik bat (horietako %75a)<sup>18</sup>, emakumeak dira onura gehien ateratzen dutenak. Hegoaldeko herrialde gehienetan emakumeek ez dute lurrik, beraz, bizirauteko duten aukera bakarra artisautza da. Bidezko

Merkataritza mugimenduaren garrantzia ezinbestekoa da, artisautza erakunde txiki hauei laguntza eskaintzeko. Izan ere, eragina agerikoa da (Bidezko Merkataritzaren Federazioak egindako ikerketa baten arabera, Bidezko Merkataritzako artisauen %70a emakumeak dira)<sup>19</sup>.

Lehengaiei eta elikagaiei dagokionez, Fairtrade International erakundeak babestuta beti<sup>20</sup>, 1.210 erakundeek ateratzen diote Bidezko Merkataritzari onura. Horiei gehitu behar dizkiegu<sup>21</sup>.

17. Fair Trade Advocacy Office. [www.fairtrade-advocacy.org/about-fair-trade/the-fair-trade-movement](http://www.fairtrade-advocacy.org/about-fair-trade/the-fair-trade-movement)

18. WFTO. 2014 Annual Report. [www.wfto.com/sites/default/files/AnnualReport\\_WFTO\\_Final%20%28AGM%20Approved%20version%29\\_0.pdf](http://www.wfto.com/sites/default/files/AnnualReport_WFTO_Final%20%28AGM%20Approved%20version%29_0.pdf)

19. Fair Trade Advocacy Office. [www.fairtrade-advocacy.org/fair-trade-and-the-eu/women-trade](http://www.fairtrade-advocacy.org/fair-trade-and-the-eu/women-trade)

20. Fairtrade International. *Monitoring the scope and benefits of fairtrade 2014*. [www.fairtrade.org.uk/~/\\_media/fairtradeuk/what%20is%20fairtrade/documents/policy%20and%20research%20documents/monitoring%20reports/monitoring%20the%20scope%20and%20benefits%20of%20fairtrade%202014.ashx](http://www.fairtrade.org.uk/~/_media/fairtradeuk/what%20is%20fairtrade/documents/policy%20and%20research%20documents/monitoring%20reports/monitoring%20the%20scope%20and%20benefits%20of%20fairtrade%202014.ashx)

21. Eco-cert fair trade, Fair for live eta Ekoizle Txikien Sinboloa ziurtatze sistemekin dauden beste 318 erakunde.



Fairtrade International-en kasuan, sistema honek milioi eta erdi langile eta nekazari baino gehiagori laguntzen die, horietako %62a Afrikan eta Ekialde Hurbilean aurkitzen dira. Produktuen arabera, langile eta ekoizle gehienak kafearen sektorean aurkitzen dira (737.000 pertsona baino gehiago), ondoren tearen sektorean (ia 300.000 pertsona) eta askoz urrunago kakaoarekin lotutako produktuen sektorean (176.600).

**Argi dago Afrika dela, milioi bat pertsona baino gehiagorekin, Bidezko Merkataritzari onura gehien ateratzen dion kontinentea.**

Bidezko Merkataritzaren merkaturatze sareen laguntzarekin, diru-sarrerak hobetzen dituzte eta egonkortasun eta segurtasun ekonomiko handiagoa lortzen dute. Soldata duin bat eta lan-baldintza osasungarriak bermatuta edukitzeaz gain, langileek “prima” bat edo diru-laguntza bat jasotzen dute beren erkidegoan, edo erakunde-ekoizlearen garapen proiektuetan inbertitzeko. Fairtrade International-en kasuan, 2014an 195 milioi dolar banatu ziren erakunde-ekoizleek modu demokratikoan aukeatutako erkidego-proiektu desberdinetan bantzeko.

Kredituak interes oso baxuan edo interesik gabe lortzeko aukera ere badute, baita ekoizpena hobetzeko arreta teknikoa eta prestakuntza jasotzeko ere. Hezkuntza eta osasuna bezalako oinarritzko zerbitzuetara sarbidea dute eta ekoizten duten beste erakunde batzuekin batera lan egiten dute. Honi esker botere handiagoa dute eta elkarrekin azpiegiturak eduki ditzakete. Honek guztiak beren bizitza kalitatea eta etorkizuneko itxaropena areagotzea ahalbidetzen die.

## “BIDEZKO MERKATARITZAK AUKERAK EMATEN DIZKIE BAZTERTUTAKO EMAKUME ASKORI”

Rojina Thapa, Sana Hastakala, Nepaleko Bidezko Merkataritzako erakunde garrantzitsuenetako bat, prentsa arduraduna

“Bidezko Merkataritzako erakundeak oso onuragarriak dira baztertuta dauden artisauentzat, izan ere baztertuta dauden emakume-artisau askori aukerak ematen baitizkie. Soldata justu bat ordaintzen die ekoizleei [...], haurrek ez dute lanik egite eta Bidezko Merkataritzaren erakunde batean ekoizleentzat giro eroso sortzen saiatzen gara”.



## “NEKAZARIEK BEREN ARAZOAK LANDATZEN IKASI DUTE”

Ada Zarate. Manduvirá. Paraguay<sup>22</sup>

“Orain nekazariak beren arazoak planteatzen eta negoziaketa batera iristea funtsezkoa dela ikasi dute. Aldaketa hau nabaria da kooperatibaren bileretan parte-hartzen hasi direlako. Ekoizleek botere handiagoa edukitzea bilatzen dugu, hau da, beren jarrera ez izatea “nire produktua kooperatibari saltzen diot, besterik ez”. Esan behar dutena da “hau nire kooperatiba da eta nire fabrika da” Onarpen-maila hori lortzea nahi dugu, eta kultura askotan, diktadura latzak bizi ondoren, menpekotasun handia dago ekoizleen aldetik oraindik. Izan ere ohituta baitaude “enpresariak esaten duena ordaintzen didate” ideia”.



© ARCHIVO CECI

## “BAT-BATEAN EMAKUME HAUEK BEREN ESKUBIDEEN ALDE BORROKA EGITEKO GAI DIRA”

Sunil Chitrakar. Mahaguthi. Nepal<sup>23</sup>

“Aldaketa ugari ikusi ditut emakume hauen bizitzan gurekin lanean hasi zirenetik. Beren buruarekiko konfiantza asko handitu da esate baterako. Bat-batean gai dira beren eskubideen alde borroka egiteko, bai etxean, bai etxetik kanpo. Erabakiak hartzeko ikuspuntutik, emakumea, besteen erabakiei men egitetik, bere erabakiak hartzera pasatu da.



© ARCHIVO CECI

Bidezko Merkataritzak langileen, erakundeen eta beren erkidegoen gainean dituen onurak askotarikoak dira eta eremu desberdinetan eragina dute. Ikus ditzagun identifikatuta sentitzen direnen egoerak egindako eragin-ikerketak desberdinei esker<sup>24</sup>:

### ERAGIN EKONOMIKOA

**Diru-sarrera gehiago:** diru-sarrera gehiago eta egonkorrakoak, urrakortasun gutxiago nazioarteko merkatuetako oinarritzko prezioen gora-beheren aurrean, hauek espekulazioaren menpe baitaude. Bizitza baldintza hobek eta epe ertain eta luzerako inbertitzeko eta planifikatzeko gaitasun eta segurtasun gehiago.

**Merkatuaren ezagutza hobea:** kontsumitzaile erantzuleen eskaera, lehenetasun eta joerei buruzko informazioa, merkatuko interes berrietara eta gehiagotara sarbidea, erkidegoan, eskualdean eta nazioartean.

**Zerbitzu finantzarioetara sarbidea:** erakunde ekoizleek gaitasun handiagoa dute tokiko eta nazioarteko erakunde

finantzarioekin maileguak negoziatzeko eta finantzaketa baldintza onenetan lortzeko.

**Berrikuntza eta diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak osagarriak:** elikadura-transformazioarekin lotutako jarduerak, turismo solidarioa, tresnak eta ekoizpen bitartekoak hobetzea, e.a.



© FAIRTRADE INTERNATIONAL

22. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2013). “Iraultza gozo bat egiten ari gara”.

[comerciojusto.org/estamos-haciendo-una-revolucion-dulce-entrevista-a-ada-g-zarate-de-la-cooperativa-manduvira-paraguay/](http://comerciojusto.org/estamos-haciendo-una-revolucion-dulce-entrevista-a-ada-g-zarate-de-la-cooperativa-manduvira-paraguay/)

23. Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordinakundea (2015). “Bidezko Merkataritzak milaka pertsoneri lagundu die pobreziaz ateratzen”.

[comerciojusto.org/el-comercio-justo-ha-ayudado-a-miles-de-personas-a-salir-de-la-pobreza/](http://comerciojusto.org/el-comercio-justo-ha-ayudado-a-miles-de-personas-a-salir-de-la-pobreza/)

24. Donaire, Gonzalo. “Bidezko Merkataritzaren eragina Hegoaldean”, Bidezko Merkataritza Espainian, 2011, CECI, Madrid, 2012, aldean. [comerciojusto.org/wp-content/uploads/2012/10/Articulo-Impactos-CJ-en-Sur.pdf](http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2012/10/Articulo-Impactos-CJ-en-Sur.pdf)

## ERAGINA GIZARTEAN



© FAIRTRADE INTERNATIONAL

**Gizarte-zerbitzuak:** hezkuntzan, eskoletako azpiegiturak, ekipamenduak eta hornidurak erostea; osasunaren esparruan, ospitaleak, mutualitateak eraikitzea, e.a

**Tokiko-garapena:** erkidegoko proiektuak finantzatzea, la-beak, komunak, errepideak eraikitzea eta edateko uraren saneamendua edo sarbidea ahalbidetzea.

## ERAGINA INGURUNEAN



© ASAMBLEA DE COOPERACIÓN POR LA PAZ

**Laguntza teknikoak:** langileei prestakuntza eskaintzea ekizpen jasagarriaren teknikan (nekazal-oparotasunaren kudeaketa, higaduraren kontrako borroka, aire librea erretze-praktikak uztea), kalitatea hobetzean eta beren produktuentzako ziurtagiri ekologikoak lortzeko orduan.

**Baliabide naturalen kudeaketa:** ura, lurrak eta bioaniztasuna zaintzea eta nekazaritza organikoa sustatzea.

## ERAGINA ERAKUNDEETAN ETA POLITIKAN

**Gaitasunak eta eskumenak indartzea:** produktuen kalitatea, merkatuko engranajeen eta nazioarteko bitartekoen ezagutza hobetzea.



© FAIRTRADE INTERNATIONAL

**Erakunde-sareak:** ekoizleek botere publikoekin harremanetarako duten gaitasuna indartzea, sektorean laguntzeko eta esku-hartzeko politikak proposatzea, GKE-kin hitzarmenak garatzea eta beste eragile batzuk.

**Zilegitasuna:** botere-publikoek eta lurralde edo/eta sektorean dauden beste eragile batzuek gizartean onartzea.

**Gobernantza:** Bidezko Merkataritzak defendatzen eta sustatzen dituen gardentasun, funtzionamendu demokratiko, parte hartze eta ez-diskriminazio irizpide berdinak aplikatzea.

Azkenik, aipatu behar da Bidezko Merkataritzak arreta berezia ematen diela emakumeei, beraientzat zailagoa baita ordaindutako lan bat lortzea, lurrak edukitzea edo mailegu bat lortzea. Lanak, diru-sarrerak emateaz gain, independentzia eta segurtasuna ematen die, baita botere gehiago ere beren bizitzako aspektu guztietan.

## “GUK LOR DEZAKEGU”

Nancy Hernández, COMUCAP-ko kafearen kalitate kontroleko nagusia Honduras<sup>25</sup>

“COMUCAP-ek nahi duena da, emakumeok lan hauek egin ditzakegula erakustea. Horren harira, uste dut nire esperientzia garrantzitsua izan dela, nire enpresaren jabea baitaelako. Horrelako lanpostu batean, kafearen kalitate kontrolaren nagusi gisa Hondurasen dagoen emakume gutxietako bat naiz. Borroka asko egin dut hau lortzeko eta uste dut nire adibideak, emakumeok nahi duguna lortzeko gai garela erakusteko balio dezakeela”.



© ARCHIVO CECJ

## HIRU KASU OSO JUSTU

**Adibide hauek ekoizleen errealitatera gerturatzeko gaituzte: pobrezian bizi diren gunetako nekazari eta artisau taldeak, Bereziki Asiak, Amerika Latindarrean eta Afrikan**

**Bangladesh** ezaguna da nazioarteko markentzat jantziak egiten dituzten pertsonen lan-esplotazioagatik, baita bertako fabriketan gertatzen diren istripu larriengatik ere. Baina **BracAarong**, Bidezko Merkataritza erakunde garrantzitsuetako bat ere Bangladeshen aurkitzen da. 1978an sortu zen eta gaur egun 350 kooperatibek osatzen dute. Bertan 23.000 pertsonen lan egiten dute eta gehiengoak emakumeak dira. Hasieratik, landa-guneetako artisauiei lan egonkorra ematea izan da bere helburua. Gainera, interes tasa oso baxua duten kredituak, sorkuntza aholkularitza eta mikro-enpresen administrazioa, lan-poltsa, hezkuntza eta osasun programak moduko zerbitzuak ematen ditu, emakume eta haurrei zuzenduta bereziki. Brac Aarong osatzen duten kooperatibek **jantziak, etxerako ehungintza eta artisautza** produktuak ekoizten dituzte, errentagarritasun ekonomikoaz gain gizarte- eta ingurune-errentagarritasuna bermatzen den ekoizpen mota bat ere bideragarria izan daitekeela erakutsiz.

Munduko beste puntan, Jinotegan, **Nikaraguan**, Bidezko Merkataritzako produktu garrantzitsuenetako bat egiten da: **kafea**. **Aldea Global**, izena duen ekoizle txikien erakundea, merkaturatzeko, kreditua lortzeko eta garatzeko laguntzak eskaintzen dizkie kide diren pertsoneri. Kalitatezko kafea ekoizteaz gain, ingurumena zaintzea, eta genero berdintasuna dira erakundearen ardatz nagusiak. Nekazariei prestakuntza teknikoa ematen zaie eta osasun-programak eta espazio naturalak babesten dituzten eko-turismo ekimenak martxan jartzen dituzte.

**Burkina Fason**, 38 herri desberdinetako 3.000 emakumek osatzen duten **UGPPK** kooperatiba **karite-koipea** jasotzen eta ekoizten espezializatuta dago. Karitea kosmetika-produktu desberdina egiteko erabiltzen da. Kooperatibak, hura osatzen duten taldeei gaitasuna eta bitartekoak eman dizkie, kalitate aparta lortuz eta karite-koipea modu zuzenean esportatzea lortu dute. Emakumeek diru-sarrerak lortzen dituzte eta honek independentzia ematen die. Bidezko Merkataritza zirkuituetan beren produktuagatik lortzen duten prezioari esker beren erkidegoetako proiektuetan inbertitu dezakete.

Ekoizle-taldeei buruz informazio gehiago<sup>26</sup> horiekin lan egiten dute Espainiako inportatzaileek CECJ webgunearen bidez.

25. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2013). “Gure produktuarekin, gure jatorria, nor garen eta zer egiten dugun azaldu nahi dugu”.

[comerciojusto.org/con-nuestro-producto-contamos-nuestro-origen-quienes-somos-y-que-es-lo-que-hacemos/](http://comerciojusto.org/con-nuestro-producto-contamos-nuestro-origen-quienes-somos-y-que-es-lo-que-hacemos/)

26. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea. [Ezagutu ekoizleak. comerciojusto.org/que-es-el-comercio-justo/el-proceso-del-comercio-justo/productores/](http://comerciojusto.org/que-es-el-comercio-justo/el-proceso-del-comercio-justo/productores/)

## INPORTATZAILEAK

Munduan **500 erakunde-inportatzaile** baino gehiago daude. Ekoizleei gaiak erosi eta denden eskura ezartzen dituzten erakundeak dira. Ekoizleekin duten harremana ardatz hauetan oinarritzen da:

- Elkarrekiko adostasuna: produkzioaren prezioa bi aldeen artean adosten da (ekoizleak eta inportatzaileak), Bidezko Merkataritzak ezartzen dituen irizpideetan oinarrituz. Modu honetan ekoizpen kostuak estaltzen dira (lehengaiak, esku-lana soldata egokiekin, lan baldintza duin eta osasungarriak) eta ekoizleek beren erkidegoan garapen proiektuetan edo beren erakunde propioan inbertitzeko mozkinak lortzen dituzte.
- Epe luzerako lan-harremanak: Epe-luzera merkatal-harremanak mantentzeko konpromisoa da alderdi berrinen arteko ulergarritasuna sustatzeko eta konfiantza sortzeko beste ardatz nagusi bat.
- Aurre-finantzaketa: Inportatzaileek alde zuzenetik finantzatu behar dute produkzioaren zati bat. Honi esker, ekoizleek ez dute beste finantzaketa mekanismo batzuetara jo behar. Modu honetan uzta galtzeagatik sor litezkeen galeren arriskuak partekatzen dira eta erakundeak zorpetu behar izatea saihesten da.
- Aholkularitza eta prestakuntza. Inportatzaileek beharrezko laguntza eskaintzen dute kalitatezko produktuak egiteko eta merkatu berrietan sartzeko.
- Produktuen garraioa eta banaketa. Batzuetan ontziratze-etapaz ere arduratzen dira, baina orokorrean jatorrizko herrialdean egitea nahiago izaten da, izan ere merkatal-jarduerari balio erantsia ematen baitzaio horrela.
- Zenbait kasutan, inportatzaileek Bidezko Merkataritzako produktu desberdinak nahastuz elikagaiak egiten dituzte.



© FAIRTRADE INTERNATIONAL

Laburbilduz, inportatzaileak denden eta ekoizleen arteko zubi nagusia dira. Ekoizleari buruzko informazio guztia ematen baitute eta modu honetan produktuen trazabilitatea ziurtatzen dute. Hornidura-katean lan garrantzitsua egiteaz gain, Bidezko Merkataritzaren printzipioen eta irizpideen bozgorailu garrantzitsuak ere badira, beren herrialdeetan mobilizazio-, eta gertaera-kanpainetan parte-hartuz eta horiek bultzatuz.

Europar, bederatzi herrialdeko hamaika inportatzaile sortu zuten EFTA 1987an. Beraien arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzeko asmo nagusiarekin, komunean zituzten eskaerak identifikatuz eta partekatutako soluzioak emanez. Modu honetan, datu-base komun bat dute, ekoizleen eta egiten dituzten produktuen informazioarekin eta merkataritzarekin lotutako sektoretako topaguneak antolatzen dituzte (artisautza, elikadura, marketina,...)<sup>27</sup>.

**Espanian, une honetan zortzi erakunde garrantzitsuk osatzen dute Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea. Merkatal aspektuari begira, Espanian banatzeko eta saltzeko helburuarekin produktuak sartzten dituzten erakundeak dira. Adsis-Equimerca, Copade, Vicente Ferrer, Oxfam Intermón eta Taller de Solidaridad erakundeak eta Alternativa3, Espanica eta IDEAS kooperatibak dira, hain zuzen ere.**

27. European Fair Trade Association. [www.european-fair-trade-association.org/efta/](http://www.european-fair-trade-association.org/efta/)

## DENDAK

Munduan **Bidezko Merkataritzako 4.000 denda baino gehiago** daude. Bertan lana egiten duen gehiengo borondatez ari da. Erakunde askok online dendak ere badituzte, Bidezko Merkataritzako gaiak gizarteko sektore zabalago bati ahalbidetuz.

Merkatal-mailan, dendak gizarte eta ingurune justizia baldintzetan egindako produktuen gama zabala aurkitzeko espazio pribilegiatuak dira. Horrela, beste saltoki batzuetan ere aurkitzen diren kafea, kakaoa edo azukrea moduan ia mundu guztiak ezagutzen dituen elikadura-produktuez gain, Bidezko Merkataritzako dendetan, bestelako produktuak ere aurki daitezke, hala nola, arropa, jostailuak, etxetresnak, kosmetika naturala, artisautza produktuak, bitxia eta osagarriak.

Dendak, gizarte eta ingurune justizia baldintzetan egindako produktuak erosteko espazioak izateaz gain, produktu bakoitzaren atzean dagoen istorioa ezagutzeko leihoak direla esan daiteke eta kontsumitzaileak eta ekoizleak nolabait gerturatzeko lana egiten dute.

Baina merkatal-katearen beste aldean dagoena ezagutzeko aukera emateaz gain, justizia globalaren alde lan egiten duen mugimendu oso bat adierazteko tokiak ere badira. Denda horietan sortzen dira kanpainak, jasotzen dira sinadurak, inkestak eta eztabaidak egiten dira eta mugimendurekin bat egiteko aukera desberdinak eskaintzen dira (boluntario bilakatuz, adibidez) eta gainera, mugimendua tokiko beste eragile batzuekin ere artikulatu daiteke (bizilagun sareak, ekonomia solidarioaren beste antolatzaile batzuk, kooperatiba-taldeak, e.a.).

Dendak, dira azken finean hiritarren eta mugimenduaren arteko zubia, Bidezko Merkataritza bizirik mantenduz. Merkatal aldea eta aktibismo aldea hedatzen laguntzen dute gainera, eta Bidezko Merkataritza mugimendutik proposatzen dugun aldaketan aurrera egiteko ezinbesteko bilakatu dira.

Horrela, Iparraldeko dendak, eta geroz eta gehiago Hegoaldekoak ere, dira "Bidezko Merkataritza mugimenduaren bihotza". Konprometituta dauden hiritarrentzat erreferentzia puntu bihurtu direnak, eta produktuak saltzeaz gain mundu justuago bat eraikitzen parte hartu nahi dute.



© ARCHIVO CECI

## ▣ PRODUKTUAK ETA SALMENTAK

Fairtrade International ziurtagiria duten produktuetan soilik, Bidezko Merkataritzako gaur egungo salmentak 5.900 milioi dolarrekoak dira<sup>28</sup> mundu osoan Hasieran, artisautza lanak merkaturatzen ziren soilik, gaur egun berriz, elikadurarekin lotutako nekazal produktuen merkaturatzea da jarduera nagusia. Hala ere, azken urteetan merkatuak eta mugimenduak izan duen hazkundera dela eta, geroz eta produktu gehiago daude eredu honekin merkaturatzen direnak, mugimendua- ren aniztasuna areagotuz.

Bidezko Merkataritzako sareetan ekoizten diren produktuak bost sail handitan sailkatu daitezke orain:

- Elikadura: kafea, txokolatea, tea, azukrea, marmeladak, gailetak, quinoa, alkoholduen edariak (rona, ardoa, likoreak), tokiko zerealak, espeziak, fruitu lehorrak, ozpina eta saldak beste batzuen artean.
- Ehungintza: Etxerako ehunak (mahai-zapiak, amantalak, eskuoihalak) eta jantziak (kamisetak, gonak, galtzak, pija- mak), beste batzuen artean.
- Artisautza: imitaziozko bitxiak, bitxiak, larrugintza, etxerako gauzak (erretiluak, edalontziak, pitxerrak, platerak, te- jokoak, loreontziak, argazkien- markoak, argimutilak, kandelan, intsentsuak), sukaldarako, tresnak, saskiak, jostai- luak, panpinak, mahai-jokoak, papergintza materiala,, musika-tresnak, maskarak, janzteko arropak, zapiak, tapizak, mahai-zapiak, eskuoihalak, ohe-estalkiak, motxilak, alfonbra, e.a.
- Kosmetika eta higiene pertsonalarekin lotutako produktuak. Crema hidratanteak, desodoranteak, eguzkitako ba- besleak, xaboiak, lurrinak, gelak, xanpuak, hortzetako pasta, beste batzuen artea.
- Beste batzuk: altzariak (jangelako mahaiak, sarrerako altzariak, kontsolak, oheburukoak, ohe-mahaiak, armairuak, ispiluak, mahai-tolesgarriak, e.a.)

Elikadura produktuak geroz eta saltoki desberdin gehiagotan aurkitzen diren arrear (denda ekologikoak, belar-dendak, merkatalguneak eta beste establezimendu batzuk), Bidezko Merkataritza dendak jarraitzen dute izaten kontsumitzaile- entzako erreferentziazko espazioak, Bidezko Merkataritzako gama zabala aurkitzeko.

## ▣ “GARRANTZITSUA DA GURE TRADIZIO KULTURALAK ZAINTEA”

Vikas Kumar. Tara. India<sup>29</sup>

“Erakundeko langileen indar handiena da antzinatik transmitituz ikasi duten artisautza-espezialitatea dutela da, gehiengoa dalits-ak dira. Tradizio kultural hauek zaintzea garrantzitsua dela uste dugu. Horregatik nahi izan dugu, askotan beren trebezia erakutsi ezin zuten eta artisautza alde batera utzi eta gaizki ordaindutako lanpostuetara hira lanera joaten ziren pertsona hauei laguntza eskaintzea”.



© ARCHIVO CECU

28. Fairtrade International. *Seigarren Txostena: “Fairtrade-ren Irismenaren eta Onuren Jarraipena”*.

29. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2012). *“Garrantzitsua da Europako kontsumitzaileei produktuen atzean zer dagoen erakustea”*. [comerciojusto.org/%E2%80%99Ces-importante-concienciar-al-consumidor-europeo-sobre-lo-que-hay-detras-de-los-productos-que-compra%E2%80%9D/](https://comerciojusto.org/%E2%80%99Ces-importante-concienciar-al-consumidor-europeo-sobre-lo-que-hay-detras-de-los-productos-que-compra%E2%80%9D/)

## “GURE KAFEAREKIN GURE JATORRIA AZALDU DEZAKEGU”

Nancy Hernández. COMUCAP. Honduras<sup>30</sup>

“Gure kafearekin gure jatorria, nor garen eta zer egiten dugun azaldu dezakegu”.




© ARCHIVO CEC

## SALMENTAK ESPAINIAN

2014an Bidezko Merkataritzaren salmentak 33,2 milioi eurokoak izan ziren, honek %8ko hazkundera suposatzen du aurreko urtearekin alderatuz. 2000 urtetik, lehen salmenta azterketa egin zenetik, batez besteko hazkundera urteko %9,4koa izan da. 2008tik aurrera, krisia hasi zenetik, Bidezko Merkataritzan espezializatutako denden salmentak murriztu zirela kontutan izan behar den arren, murrizketa hori orekatu egin zen, Fairtrade zigilua inplementatu zenetik, merkaturatze bide arrunten bidezko salmentak hazi egin baitziren ondorioz.

Hala ere, merkatal aspektuak alde batera utzita, Bidezko Merkataritzarentzat gure denden salmentek izan duten beherakada kezagarria da. Denak erreferentziazko espazioak dira hiritarrentzat, non baldintza justuetan egindako produktuak erostez gain, mugimenduan parte hartzeko aukera desberdinak aurkitzen dituzten. Beste hitz batzuetan, dendak dira Bidezko Merkataritza mugimendua ahalbidetzen dutenak, hiritarrek in etengabe kontaktuan egoteko artikulazio bide bat hain zuzen ere. Bertan mundu justuago eta solidario baten aldeko errebindikazioetan parte hartzeko aukera konkretu desberdinak eskaintzen baitira. Beherakada honek galera kuantitatibo garrantzitsua den arren Bidezko Merkataritzako erakundeentzat, batez ere, ordezkatzeari zaila izango den galera kualitatiboa suposatzen du.

Bidezko Merkataritzako produktuen salmenten eboluzioa, 2000-2014 (etengabeko milioi euroak, oinarria 2014)



Iturria: gure datuak.

30. *Ibidem*.

Bidezko Merkataritzak Espainiako biztanleen erosketa ohituretan izan duen inplementazioaren arabera, 2014an urteko gastua biztanleko 0,71 eurokoa izan zen. Europako batez bestekoa berriz 13,42 eurokoa. Desberdintasun hau, Bidezko Merkataritza Espainiara beranduago iritsi zelako izan daiteke, 20 urte beranduago mugimendu honetan aitzindari izan ziren Europako beste herrialde batzuekin alderatuz. Kontsumoa biztanleen portzentaje batek egiten du, biztanleriaren bostenak, CIS-en inkesta baten arabera<sup>31</sup> 2014an egina: Beraz hazkunderako marjina esanguratsua da. Horretarako, garrantzitsua izango da Administrazio Publikoen, enpresen eta komunikabideen inplikazioa indartzea..

Gehien saltzen diren produktuak elikadurarekin lotutakoak dira, 2014an fakturazioaren %90,6a suposatuz. Kafea da gehien saltzen dena, ondoren azukrea eta gero kakaoa. Bigarren postuan artisautza dago, salmenten %7,4 hain zuzen ere. Sektore honetan osagarriak, ehungintza, dekorazioa eta jostailuak aipatu daitezke gehien saltzen diren

produktuen artean. Gainontzeko salmentei dagokionez kosmetika nabarmendu daiteke, guztiaren %2 suposatzen duelarik.

Salmenta puntu nagusiak kafetegiak, izozki-dendak, tabernak, vending makinak dira (%36,8a 2014an) eta jarraian supermerkatuak eta merkatalguneak (%35,1). Bidezko Merkataritzako denda espezializatueta eman zen salmenten %17,3a 2014an, 5,9 milioi euroko fakturazioarekin. Ondoren belar-dendak edo produktu ekologikoen dendak bezalako saltoki txikiak aurkitzen dira. Aipatzekoa da Administrazio Publikoek egin zaien salmenta fakturazio osoaren %0,09a besterik ez dela. Zentzu honetan, Bidezko Merkataritza laguntzeko beren inplikazioa beharrezko dela ohar-tarazi nahi diegu.

**Salmenten eta horien eboluzioari buruzko informazio zehatzago bat nahi baduzu:** *Bidezko Merkataritza produktuen merkaturatzea Estatu Espainolean, 2014an.*

## “JENDEAK KONTURATZEN HASI DA PRODUKTUEK KALITATE BIKAINA DUTELA”

Mónica Gómez, Setem MCM-ko Bidezko Merkataritzako arduraduna<sup>32</sup>

“Aldatu den aspektuetako bat jendearen parte-hartzea da. Nik uste, lehenago Bidezko Merkataritza kalitate gutxiagoko zerbait zela uste zela, mesfidantza gehiago zegoen. Produktuak probatuz eta ezagutuz, jendea ohartzen da kalitate bikaina dutela. Gainera uste dut, gizarteak sentsibilitate gehiago duela orain gizartearekin lotutako gaiak dagokionez”.




© ARCHIVO CECI

## “ZERBAIT EGIN BEHAR DA GAUZAK ALDATZEKO”

Luis Miguel de Tapia, Bidezko Merkataritzako boluntarioa Bidezko Merkataritzako denda batean

“Hemen lan egiteko arrazoietakoa bat, guztiok erosten eta kontsumitzen ditugun gauza asko merkataritza oso bidegabe baten ondorioz eta lan baldintza negargarrietan lortzen direla jakiten hasi garen arren (jantziak, elikadura...), zerbait egiten ez badugula, ezer ez dela aldatuko ohartu naizela da. Egoera bidegabe batean gaudela pentsatzeaz gain, zerbait egin behar dugu gauzak aldatzeko”.




© ARCHIVO CECI

## “GURE KONTSUMO OHITURAK ALDATU BEHAR DITUGU”

Annika Suárez Bidezko Merkataritzako produktuen kontsumitzailea

“Uste dut garrantzitsua dela Bidezko Merkataritzako produktuak aukeratzea, gure kontsumo ohiturak aldatu behar ditugula uste dudalako, guztiontzako modu erantzuleago eta justuago batean kontsumitu beharko genuke”.



© ARCHIVO CECI

31. 3.024. ikerketahttp. [www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3020\\_3039/3024/es3024mar.pdf](http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3020_3039/3024/es3024mar.pdf)

32. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea. “Kezkagarria izango litzake lan-esplotazioa normala edo ezinbestekoa den zerbait moduan hartuko bagenu”. [comerciojusto.org/seria-preocupante-que-ilegamos-a-considerar-normal-o-inevitable-la-explotacion-laboral/](http://comerciojusto.org/seria-preocupante-que-ilegamos-a-considerar-normal-o-inevitable-la-explotacion-laboral/)



## KONTSUMITZAILEAK

Mundu perfektu batean, kontsumitzaileek kontsumitzen dituzten produktu guztiei buruzko informazioa eskuragarri izan beharko lukete: norik ekoizten ditu produktuak, zein lan-baldintzetan, nolako soldatekin, zein lan-babesekin, e.a. Baina errealitatea bestelakoa da. Etiketaren arabera, produktuak non ekoiztu diren besterik ez dugu ikusten, ez dugu inongo informaziorik ekoizteko eman diren gizarte- eta baldintza-egoerei buruz.

Bidezko Merkataritzaren mugimenduak nazioarteko erakunde desberdinen aurrean salatu du, informazio hau produktu arrunten etiketetan sartzeko beharra, kontsumitzaileei produktuak kontsumituko diren erabakia hartzen errazteko funtsezko elementu gisa.

Zentzu honetan, Bidezko Merkataritzaren lanetako bat kontsumitzailearen eta ekoizlearen arteko harreman zuzenago bat sortzea da. Gerturatze honen oinarria ekoizleen bizitza baldintzak eta produktu hauek erosteak, pertsona horiengan eta beraien erkidegoengan izango duen eragina zein izango den ezagutzea da. Harreman honi esker, kontsumitzaileak eguneroko kontsumo ohituraren bidez, merkatal-balioa izateaz gain, istorio bat eta gizarte- eta ingurune-balio berri bat duen kontsumo bat erosteko aukera izango du. Beraz, Bidezko Merkataritza mugimenduaren helburuetako bat da kontsumo zentzuduna eta erantzulea kontsumitzaileek ekoizleen lan-baldintzak hobetzeko eta beraien erkidegoetan garapen jasagarria sustatzeko aldaketa prozesuan parte hartzeko bitarteko bihurtzea. Laburbilduz Iparralde-Hegoalde harreman justu bat.

Bidezko Merkataritza mugimenduarentzat, gizarte- eta planetaren ingurune-jasagarritasuna lortzeko pertsona bakoitzak ekoizpenak dituen eragin soziologiko eta ekologikoen erantzuleetako bat dela ulertu behar du. Beraz, kontsumo zentzudun eta erantzule baten aldeko mugimendu global gisa Iparralde-Hegoalde harreman iraunkor baten ideiarekin erroka gure gain hartzen dugu. Harreman horretan, espazio desberdinetan egon arren, munduko mekanismo ekonomikoak aldatzeko interesa duten pertsonak eta sektoreak sartzen dira.

Bestalde, kontsumitzaile kritiko modu “justuan” ekoiztutako produktuen merkatuarekin konpromisoa erakusten dutenen arteko harreman berri honez gain, Bidezko Mer-

**Bidezko  
Merkataritzaren  
mugimenduak merkatuko  
bidegabekeriei eta Hegoaldeko  
milaka ekoizlek bizi dituzten  
pobrezia baldintzei buruzko  
informazioa eman nahi  
die kontsumitzaileei**

kataritzaren mugimenduak merkatuko bidegabekeriei eta Hegoaldeko milaka ekoizlek bizi dituzten pobrezia baldintzei buruzko informazioa eman nahi die kontsumitzaileei. Horregatik “ez da zerbait erosten, baizik eta zerbait erosten zaio norbaiti” lelopean<sup>33</sup> pobrezia-aren eta kontsumoaren arteko harremana gogoratu nahi dugu eta milioika pertsonen bizitza baldintzak hobetzeko aukera dugu eguneroko erosketak egitean.



© ARCHIVO CECI

33. Roozen y Vander Hoff, 2002.

## “GARRANTZITSUA DA KONTZIENTZIA SORTZEA EUROPako KONTSUMITZAILEARENGAN, EROSTEN DUENAREN ATZEAN ZER DAGOEN HAUSNARTZEKO”

Vikas Kumar, Tara erakundeko kidea. India<sup>34</sup>

“Kontsumitzaileak Bidezko Merkataritza erostera animatu nahiko nituzke, egiten duguna gardentasun eta erantzukizun osoz erakusten dugulako eta gure artisauen bizitza zentzu guztietan nola hobetzen den bermatzen dugulako. New Delhin adibidez, argimutilak edo Gabonetako zuhaitzetako apaingarriak egiten lan egiten duten haurrak daude. Produktua hauek ez dira Indian erabiltzen, baina kanpoko eskaerak dituztelako ekoizten dituzte, Estatu Batuetatik edo Europatik hain zuzen ere. Jendeak merkeak direlako erosten ditu produktu hauek, nondik datozen jakin gabe. “Horregatik, garrantzitsua da kontzientzia sortzea Europako kontsumitzailearengan, erosten duenaren atzean zer dagoen hausnartzeko” Bidezko Merkataritzako dendetan, jendeak produktuak nondik datozen jakin dezake, boluntarioek azaldu egingo dietelako. Azkenik, Indiako eta beste leku askotako mila artisauro baina gehiagori laguntza eskaintzen dieten pertsona guztiak eskertu nahi ditut, beren bizitza baldintzak aldatzea ahalbidetzen baitute”.

Kontsumitzaileek ere ateratzen diote onura Bidezko Merkataritzari, kontsumo erantzulearen beste aukerekin batera, kalitatezko gaiak eros ditzaketelako, modu koherentean,

beren printzipio etikoak jarraituz eta gizartea aldatzeko rol aktiboa eraman dezaketelako.

## KONTSUMITZAILEEN INDARRA

Juanjo Martínez, Oxfam Intermón-eko Bidezko Merkataritzako erosketen arduraduna

Produktuaren katean, kontsumitzaileak amaieran daude produktuaren ibilbidea jarraituz. Zenbait industrietan produktuaren suntsitzaile izenarekin ezagutzen dira. Hala ere, merkataritza marjinazio egoeran bizi diren pertsonentzat garapen aukerak sortzeko tresna moduan hartzen denean, kontsumitzaileak bihurtzen dira prozesuaren lehen pieza. Makina funtzionarazten dutenak dira.

Hiritartasuna modu erantzulean eramatea lau urtean behin bozkatzeko edo baino zerbait gehiago den garai hauetan, non giza eskubiak ez diren negoziagarriak, aktibismo modu berriak gertu dira gizarte-sareak eta komunikabide berriak aprobetxatuz. Izan ere, jendeak mundu justuago bat lortzeko askoz ere gehiago egin dezakeela uste baitu. Eta horrela, erosketa egitea moduko gauza hain arunt batekin munduko beste toki batzuetan eragin zuzena sortzeko gai gara.

Guatemalan, Guaya’b milaka nekazari txiki biltzen dituen kafe-kooperatiba bat da. Bidezko Merkataritza sustatzen du, hau da, orri hauetan azaltzen diren garapen aukera guztiak sortzen dituen merkaturatzea ahalbidetzen du. Baina asko kostatzen da ekoizpen kate guztian mekanismo honen onurak ateratzea lortzea eta urtero, %20a eta %50a bitartean dagoen zati bat merkatu arruntean saltzen da azkenean. Hau gertatzen da ez dagoelako nahikoa negozio-bolumen. Salmentak hareagotuko balira, %100a saldu ahalko litzake Bidezko Merkataritzaren sareetan, pertsona gehiagori lagunduz modu zuzenean. Baina kasu honetan, Bidezko Merkataritzako onuradunak familia-nekazarien artean banatzen ditu irabaziak, eta ondorioz, ez da hain nabaria. Egoera honek pizgarria kentzen die kooperatibistei.

Uganda, ACPCU, kafe-kooperatiba txikia da eta estrategia desberdina darama: kooperatibista berriak onartzen ditu eskaera gehiago lortzen dituen neurrian. Baditu zenbait arrisku erakunde inportatzaileentzat zenbait eskaera gaizki kalkulatu daitezkeelako, baina kooperatibistak askoz ere poziago daude eta ondorioz konpromiso handiagoa dute.

Eredu hauek, berez ekoizleen ziurgabetasun eskaera baten aurrean hartzen dituzten bi estrategia dira. Zein kafe mota erosiko duten erabakia segundo dezima batzuetan aukeratzen duten hainbat kontsumitzailearen ziurgabetasuna hain zuzen ere. Bidezko Merkataritzako kafe bat erostea erabakitzen dutenean, Guatemalako nekazari-familiei aukera gehiago edukitzeko laguntzen ari dira eta Ugandako familiei garapen-gurpil honetan sartzeko aukera ematen diete. Beraiek dira, geu gara, kontsumitzaileok daukagu indarra eta erantzukizuna. Eta orain, badakigu.



© ARCHIVO CECI

34. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2012). “Garrantzitsua da Europako kontsumitzaileei produktuaren atzean zer dagoen erakustea”. [comerciojusto.org/%E2%80%99Ces-importante-concienciar-al-consumidor-europeo-sobre-lo-que-hay-detras-de-los-productos-que-compra%E2%80%9D/](https://comerciojusto.org/%E2%80%99Ces-importante-concienciar-al-consumidor-europeo-sobre-lo-que-hay-detras-de-los-productos-que-compra%E2%80%9D/)



© WFTO

## BERME-ZIGILUAK

Bidezko Merkataritzaren lehen etapetan, hura sustatzen duten erakundeengan konfiantza edukitzea nahikoa berme zen beren irizpideak betetzeko. Denborarekin eta Bidezko Merkataritza gizartean inplementatzen joan den neurrian berme-zigiluak sortu ziren eta azkenean, erakundeek eta espezializatutako dendez gain, Bidezko Merkataritzako produktuak saltoki arruntetan ere merkaturatu ahal izan dira.

Lehenengo zigilua Herbeheretan sortu zen 1988an, Max Havelaar, hain zuzen ere. Ondoren, produktuak ziurtatzeko ekimen desberdinak sortu ziren herrialde desberdinetan. Azkenean, 1997an, ekimen gehienak Fairtrade Zigiluaren azpian bildu ziren. Gaur egun, zigilu honen erakundeak daude 25 herrialde desberdinetan, horien artean Espainia. Guztiak Fairtrade International erakundearen taldekatzen direlarik.

Erakunde nazionalak eskaintzen diete aholkularitza Bidezko Merkataritzako zigitudun produktuak saldu nahi dituzten enpresei eta zigilua erabiltzeko lizentzia ematen diete. Inplikaturako alderdi guztiak ikuskatzen ditu noizbehinka

kanpoko ikuskari batek. Erakundeek hedapen ekimenak ere egiten dituzte eta hiritarrek, administrazio publikoek eta enpresek Bidezko Merkataritzako produktuak erostera bultzatzen dituzte.

**Kontsumitzaileak.  
Makina  
funtzionarazten  
dutenak dira**



Bestalde, Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeak ere bere zigilu propioa du WFTO Product Label eta Bidezko Merkataritzaren irizpideak betetzeaz harantzago doa. Zigilu hori duten produktuak pobrezia eta desberdintasunen kontra modu aktiboan borrokatzen duten erakundeek ekoizten dituzten produktuak dira.

Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeak beste zigilu batzuk ere aintzat hartzen ditu: Naturland Fair, Naturland erakunde alemaniarraren zigilua da. Erakunde honek Bidezko

Merkataritza eta Hegoaldeko eta Iparraldeko nekazaritza organikoa bultzatzen ditu. Ecocert-Fair, 1991an Frantzia sortu zen kontrol- eta ziurtapen erakundea da. Nekazaritza ekologikoko produktuen zigiluak ezartzen espezializatuta dago. Fair for Life, erakunde suitzarrak elikadura, kosmetika, ehungintza eta zerbitzu turistikoekin lotutako produktuen zigiluak ezartzen ditu eta azkenik, Símbolo de Pequeños Productores, 2006an Latinoamerikako Koordinakundeak eta Caribe de Pequeños Productores de Comercio Justo (CLAC) erakundeak elkarrekin aurkeztutako ekimena.

## ■ GIZARTE MOBILIZAZIOA

Beste erakunde batzuek egiten duten moduan, Bidezko Merkataritza mugimenduak sustatzen duen gizarte aldaketa, pobrezia eta desberdintasun sozialen zergatietan buruzko informazioa duen biztanleria bat dagoenean bakarrik eman daiteke. Biztanleek beren ekintzek duten indarrak ohartu behar dira, mundu global bateko hiritar gisa duten erantzukizunetik zein kontsumo kritiko eta erantzulea egin behar diren ikuspuntutik. Ondorioz, hedapenak eta sentsibilizazio kanpainak gauzatzen dituen jardueren funtsezko zatia da eta bi helburu nagusi ditu, hala nola, kontsumo erantzulea

Espanian **Bidezko Merkataritzaren Mundu Egunean** zehar Estatuko Koordinakundea osatzen duten erakundeek Bidezko Merkataritza kalera ateratzen dute hiritarrei gure errebindikazioak eta salaketak ezagutzera emateko, ekimen ludiko eta kulturalen bidez eta haurrentzako jarduerekin. Kanpainak urtero gai desberdin batean sakontzen du. 2015an Haritik egin tira! lelopean<sup>35</sup>ehungintzaren sektorea landu zen. 2014an, kakaoa izan zen protagonista<sup>36</sup>eta 2013an azukrea<sup>37</sup>.

**Bidezko Merkataritzaren Aldeko Hiriak** nazioarteko ekimena<sup>38</sup> Espainian ere badago, IDEAS kooperatibaren eskutik. Ekimenarekin bat egin dute Kordoba, León, Madril, Laredo (Kantabria), Puerto Real (Cádiz) eta Torrelavega (Kantabria) hiriek eta Albacete, Burgos, Huelva, Málaga, Cáceres, Zaragoza eta Portugalete Bidezko Merkataritza hiriko zenbait lekutan sustatzeko lana egiteko ziurtagiria lortzeko borrokan hari dira: administrazioak, saltokiak, enpresak, ikastetxeak eta elkarteak.

Halaber, ikastetxeak eta inplikatzeko programak ere badaude, Bidezko Merkataritzaren aldeko Unibertsitateak eta Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxeak, hain zuzen ere.

Bidezko Merkataritza mugimenduaren ezaugarrietako bat hobekuntza globala lortzeko prozesuan aurrera pausoak egiteko hiritarren mobilizazioa bultzatzea da. Gizartearen kontzientziaketa eta mobilizazioa helburut-

sustatzea eta herritarrek gizarte-aldaketarako ekimenetan inplikatzeko.

Nazioartean aipatzekoa da 2001ean sortu zen eta urtero maiatzeko bigarren larunbatean ospatzen den **Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna**. Aisiarekin, hezkuntzarekin eta kulturarekin lotutako jarduerak egiteko eguna da, Bidezko Merkataritza hiritarrei gerturatzeko asmoarekin. Hala ere izaera errei-indikatiboa duen ekimena da ere bada, nazioarteko merkataritzako praktika bidegabeak salatuz eta Bidezko Merkataritzak eskaintzen duen alternatiba ezagutaraziz. 2014an, 10.000 jarduera baino gehiago antolatu ziren mundu osoan.

zaten jarduera desberdinak antolatzea eta hauek parte hartzea da Bidezko Merkataritza erakundeek izendatzaile komuna. Hitzaldiak, eztabaidak, dibulgazio materialak eta erakusketak sustatuz, nazioartean merkataritzak sortzen dituen desberdintasunak ezagutzera emateko eta Bidezko Merkataritzak eskaintzen duen alternatiba eta erkidego pobreetan duen eragin positiboa erakusteko. Askotan beste gizarte talde batzuek eta kulturaren esparruko pertsonaia ezagunek ere parte hartzen dute, esate baterako 10 umorista grafikok parte hartuta egindako 10 arrazoi ematen dizkizuegu Bidezko Merkataritza Kontsumitzeko erakusketak (Andrés Rábago El Roto, Alfonso López, Pilarín Bayés, Antonio Fraguas Forges, MEL, Malagón, JRMora, Idígoras y Pachi, Erlich y Ramón). Sortu zenetik ia Espainia osoan ikusgai egon da.



© ARCHIVO CECJ

35. *Ibidem*.

36. *Ibidem*.

37. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2013). Bidezko Merkataritzaren 2. koaderno. [comerciojusto.org/wp-content/uploads/2013/05/castellano-baja.pdf](http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2013/05/castellano-baja.pdf)

38. Bidezko Merkataritzaren Aldeko Hiriak. [www.ciudadjusta.org](http://www.ciudadjusta.org)

## ERAGINA

Eragin-kanpainak multinazionalen eskubideei pertsonen eta ingurumenaren eskubideei baino garrantzi gehiago ematen dieten politika ekonomikoak salatzen daude, baita mundu justuago eta solidarioago bat eraikitzeko ekimen konkretua sustatzeko ere. Helburuaren arabera, nazioarteko erakunde eta organismoek, gobernuak, alderdi politikoei, administrazio publikoei, enpresei edo erakunde zibilei zuzentzen zaie beti ere helburuak lortzeko hiritarren parte-hartzea sustatuz. Hauek dira Bidezko Merkataritzak parte hartu duen nazioarteko kanpainetako batzuk:

**Bidezko Merkataritzaren Aldeko Hiriak**, 20 herrialde desberdinetan 1.100 hiri baino gehiago biltzen dituen kanpaina da. Haren helburua herri mailan Bidezko Merkataritzaren ezagutza sustatzea da. Kanpainaren estrategia hirian kontsumoarekin lotuta dauden eragile garrantzitsu guztiak inplikatzeko da, zentzudun kontsumo erantzulearen inplementazioa areagotzeko prozesu jarraitu bat eratze-ko helburuarekin. Bidezko Merkataritzaren Aldeko Hiriak bereizgarria lortzeko herri batek Bidezko Merkataritzaren hedapenean eta zabalkuntzan modu aktiboan parte-hartzen duela bermatzen duen baldintzak bete beharko ditu, Administrazio Publikoen, enpresen, ikastetxeen, saltokien, elkarte... inplikazioarekin<sup>39</sup>.

**Erosketa publiko etikoa** da landu beharreko beste alderdi bat. Ekonomia solidarioa eta Bidezko Merkataritza hedatzen laguntzeaz gain, administrazio publikoek hiri-

tarren aurrean eredu justuago eta bidezkoagoaren aldeko apustua eginez. Administrazio publikoen ondasun eta zerbitzuen kontratazioa egiteko orduan irizpide ekonomikoak erabiltzeaz gain, gizartearen eta ingurumenaren ongizatearekin lotutako irizpideak ere erabiltzea nahi da. Bidezko Merkataritza erosketa publikoan sartzea da erakundeek helburuetako bat, baita hau erraztuko duen legedi bat egitea ere. Zentzu horretan, Europako Parlamentuak<sup>40</sup> Bidezko Merkataritzako eta gizarte eta ingurune irizpide jakin batzuk betetzen dituzten beste zerbitzu eta produktu batzuk erostea erraztuko duen kontratazioari buruzko Zuzentarau bat onartu zuen.

**Arropa Garbia Kanpaina (AGK)**, kirol arroparen eta oinetakoen industriaren giza eskubideak defendatzen dituen nazioarteko sarea da<sup>41</sup>. 1.989. urtetik, funtsezko eskubideen alde eta langileek beren boterea berreskuratzeko alde lan egiten du. Erakunde kideen artean sindikatuak eta GKE-ak daude eta perspektiba eta interes sorta anitza estaltzen dute, giza eskubideak, eragin politikoa edo pobrezia-erazteko, esate baterako. European 17 herrialde desberdinetan aurkitzen da eta mundu mailan 250 erakunde eta sindikatuk osatutako sare baten bidez jarduten du, jantziak ekoizten dituzten herrialdeetan. AEBn, Kanadan eta Australian giza eskubideen aldeko erakundeak dituzte. SETEM da Espainian Arropa Garbia Kanpaina koordinatzen duen erakunde 1997tik.

**Vote for Fair Trade** Bidezko Merkataritza Mugimendua- ren Eragin Politikoaren Bulegoak (FTAO) koordinatzen duen ekimena da. Egoitza Bruselan du eta bere helburuetako bat, Bidezko Merkataritza Europar Batasuneko (EB) erakundeek agendan sartzeko ekimen bateratuak martxan jartzea da<sup>42</sup>.

2014ko maiatzean ospatu ziren Europako Parlamentuko hauteskundearen harira, hautagaiei zuzendutako kanpaina bat koordinatu zen, desberdintasun globalak saihesteko eredu ekonomiko bidezkoago baten alde egitera bultzatzeko. Bidezko Merkataritzako erakundeek Manifestu batean bildu zituzten beren errebindikazioak, talde moduan jardueraren funtsean pertsonen garrantzia ematen dien ekonomia eta merkataritza eta Bidezko Merkataritzaren aldeko estrategia europarra garatzea sustatuz. 512 hautagaiek sinatu zuten Manifestua eta horietako 118 izan ziren



© FAIR TRADE ADVOCACY OFFICE

39. Fairtrade Towns. [www.fairtradetowns.org](http://www.fairtradetowns.org)

40. *Ibidem*.

41. Arropa Garbia Kanpaina. [www.ropalimpia.org](http://www.ropalimpia.org)

42. Vote for Fair Trade. [www.fairtrade-advocacy.org/vote4ft-campaign](http://www.fairtrade-advocacy.org/vote4ft-campaign)

hautatuak Europako Parlamenturako<sup>43</sup>. Bidezko Merkataritza mugimenduak laguntza hori EB-ko politiken aldaketan ikusteko lanean jarraitzen du.

Bidezko Merkataritzako erakundeak ere bat egin dute Merkataritza eta Inbertsio Transatlantikoaren Hitzarmenaren

kontrako kanpainarekin (TTIP)<sup>44</sup> Europar Batasunarekin eta Estatu Batuekin negoziatzen ari dena. Hitzarmen hau onartzeak beste pauso bat suposatuko luke pertsonen eskubideen, lan-baldintzen eta ingurumenaren babesaren aurretik enpresen interesei lehentasuna ematen dioten globalizazio ekonomikoaren prozesuarentzat. ●

Espanian, eragin ekimenen helburuetako bat da ekonomia-eta merkatal-praktika bidegabeak salatzea eta orientazio konkretuak eskaintzea, pertsonen eskubideei eta ingurumenaren errespetuari garrantzi gehiago emateko.

Zentzu honetan, hausnarketaren eta eztabaidaren fruitu gisa, Bidezko Merkataritzak merkatal hitzarmenak salatzeo erabakia hartu zuen<sup>45</sup>, horregatik egin zuen CECJ-k bat TTIP-en kontrako kanpainarekin<sup>46</sup>, herrialdeetako eta ekoizle eta kontsumitzaileen ondasun komunak babesteko beharrean oinarrituz.

Baian Bidezko Merkataritza sustatzeko proposamenak ere eskaintzen ditugu. Oso laguntza garrantzitsuak lortu ditugu estatuan zein nazioartean, hala ere ez dira nahikoa<sup>47</sup>. Interesgarria da aipatzea legezkoak ez ziren legeen onarpena 2009 eta 2012 urteetan, Diputatuen Kongresuaren aldetik: 1998ko Garapenaren Laguntzarako Legea, non Bidezko Merkataritza aipatzen zen bereziki edo 2015-2018 Zuzendaritza Plana, Bidezko Merkataritza garapenerako tresna garrantzitsua zela aintzat hartzen zuena.

Erosketa publiko etikoaren alorrean Bidezko Merkataritza sartzeko eskaerak egin ditugu, Administrazio publikoek egiten dituzten kontratu eta erosketetan, gizartearen eta ingurunearekin lotutako beste irizpide batzuen eskaerarekin batera. 2007ko Sektore Publikoen Kontratuen Legean, hartu zen kontutan lehenengoz Bidezko Merkataritza erosketa publikoaren irizpideen artean. Beste batzuen artean gizarte eta ingurumen irizpideak sartuz. Gaur egun, 2014/24/UE Zuzentarauaren transposizioak kontratu publikoetan gizartearekin eta ingurunearekin lotutako klausulak sartzeari errazteko lanean ari gara.

Europako Vote For Fair Trade (Bozkatu Bidezko Merkataritza)

kanpaina ere ikusi ahal izan genuen Espanian. Manifestuak, legealdian Bidezko Merkataritzaren irizpideak defendatzeko konpromisoa aldarrikatzen zuen eta sei alderdi politikotako zortzi hautagaiek sinatu zuten: PSOE, Izquierda Unida, Equo, Iniciativa per Catalunya Verds-Esquerra Unida i Alternativa, Podemos eta Por un Mundo más Justo.

Kanpaina honetako eskakizunak sakonago zehaztu ziren Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordinakundearen Zein merkatal-justizia zer nolako Europar Batasunerako? txosten<sup>48</sup>bertan Europako merkatal politikak dituen eragin garrantzitsuenak aztertzen dira, eta alternatiba posibleak eskaintzen dira. Europako Parlamentuko hautagaiei Vote for Fair Trade Manifestuarekin batera bidali zitzaizen txosten honetan, Europar Batasuneko merkatal ereduak gainproduktzioa, ingurumenaren hondamena dumping praktikak eta familiako nekazaritzaren eta nekazaritza txikiaren suntsiketa sortzen duten nazioarteko enpresa handiek menperatzen duten nekazal-negozioa sortzen duela argudiatzen da.

Arropa Garbia Kanpaina 1997an sortu zen Espanian, Setem-ek koordinatuta<sup>49</sup>. Oxfam Intermón bezalako beste erakunde batzuek egindako eragin kanpainak ere aipatzekoak dira, hala nola, Bidezko Merkataritza, erantzukizunarekin kontsumitzea eta Merkataritza Justiziarekin. Iritzi publikoari jakitera eman ziotelako Hegoaldeko herrialdeetako langileen lan-baldintzak.

Azkenik, hauteskunde desberdinak aprobetxatuz (herrikoak, autonomikoak eta orokorrak) alderdi politikoek Bidezko Merkataritzaren aldeko neurriak sartzeko kanpainak egin dira. 2015eko abenduaren 20an ospatutako azken hauteskunde orokorretan adibidez, alderdi politiko desberdinek beren laguntza erakutsi zuten Bidezko Merkataritzako hamar irizpideak sustatzeko<sup>50</sup>.

43. Europar Batasuneko 751 kidek osatzen dute.

44. #NoalTTIP Kanpaina. [www.noalttp.org](http://www.noalttp.org)

45. "CECJ Europar Batasunak garapen bidean dauden herrialdeekin dituen Merkatal-Hitzarmenen kontra" Bidezko Merkataritza Espanian 2010, CECJ, MADRIL, 2011. [comerciojusto.org/wp-content/uploads/2013/08/cecj-frente-a-acuerdos-comerciales.pdf](http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2013/08/cecj-frente-a-acuerdos-comerciales.pdf)

46. Ibidem.

47. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea. Bidezko Merkataritzari ematen zaion instituzio-laguntza. [comerciojusto.org/wp-content/uploads/2014/01/Apoyos-publicos-CJ.pdf](http://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2014/01/Apoyos-publicos-CJ.pdf)

48. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2014). Zein merkatal-justizia zer nolako Europar Batasunerako

[comerciojusto.org/publicacion/informe-que-justicia-comercial-para-que-union-europea](http://comerciojusto.org/publicacion/informe-que-justicia-comercial-para-que-union-europea)

49. Ibidem.

50. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2015). Bidezko Merkataritza hauteskunde-programetan. [comerciojusto.org/el-comercio-justo-en-los-programas-electorales](http://comerciojusto.org/el-comercio-justo-en-los-programas-electorales)

# 3

## NOLA ANTOLATZEN GAREN

**B**idezko Merkataritza mugimendurako ezinbestekoa da lan-sare bat, esperientzien har-tu-emana, guztion parte hartzea erronka orokorrei soluzioak bilatzeko. Puntu guzti hauek merkatal jardueran sartzen dira baina ez dira nahikoa. Hori dela eta, erakundeak saretan antolatzen dira nazioartean zein estatuan. Irizpideak zehazteko eta hauek beteko direla bermatzeko, gardentasun mekanismoak errazteko, sentsibilizazio ekintzak egiteko eta kanpainak martxan jartzeko.



Nazioartean **Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea** da sare ezagunena. 2009an sortu zuten IFAT eta NEWS bezalako sareek eta gaur egun 79 herrialde desberdinetako 359 erakundek osatzen dute. Hau osatzen duten erakundeak ere eskualde-saretan antolatzen dira Afrikan, Asian, Europan, Amerika Latindarrean eta Pazifikoan.



© FAIRTRADE INTERNATIONAL



Erakunde-kideek Bidezko Merkataritzaren nazioarteko printzipioak betetzen diren ebaluatuzko den akreditazio sistema bat pasatu beharko dute. Akreditazio sistema honetan autoebaluaketa bat, kanpo-ikuskaritza eta beste erakunde-kide batzuen ebaluazioak hartzen dira kontuan. kidetza aldika aztertzen eta monitoretzen da.

## Fair Trade

ADVOCACY OFFICE

Aipatzekoa da baita ere aipatu dugun Bidezko Merkataritza Mugimenduaren Eragin Politikoaren Bulegoa (**FTAO**), Fairtrade International, Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeak eta bere Europako sareak bultzatutako ekimena.

Egoitza Bruselan du eta eragin politikoa duen lana koordinatzen du Europa mailan. Bidezko Merkataritzan eragina izan dezaketen EBko politiken eta merkatal-harremanen jarraipena egiten du. Europako Batzordeko funtzionarioekin, Parlamentuko kideekin eta EBko beste erakunde batzuekin kontaktua du eta Bidezko Merkataritza mugimendua eta politika jakin batzuen aurrean duen jarrera ezagutzera ematen du.

Estatu mailan, erakundeak plataforma nazionaletan taldekatzen dira, **Espanian Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordenakundea esate baterako.**

Bestalde, ekoizleen antolakuntza sareek ere balio erantsi handiagoa ematen diote Bidezko Merkataritza mugimenduaren orientazioari. Gaur egun, sare hauek estatu mailan zein nazioartean antolatzen dira. Aipa ditzagun horietako batzuk:

### AMERIKA LATINDARRA ETA KARIBEA:

LAmerika Latindarreko Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeak 20 herrialdeetako 61 kide ordezkatzeko ditu.

Bidezko Merkataritzaren ekoizle txikien Amerika Latindarreko eta Karibeko Koordenakundea (CLAC) inguruko 20 herrialdeetako ekoizleen 300 erakunde txiki eta langile elkarte ordezkatzeko dituen sarea da.

### AFRICA:

COFTA-k (Cooperation for Fair Trade in Africa) Afrikako 20 herrialdeetako 70 erakunde-kide ordezkatzeko ditu.

Fairtrade Africak 29 herrialde ekoizletako 260 erakunde biltzen ditu.

### ASIA:

Asiako Latindarreko Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeak (WFTO-Asia), 15 herrialdeetako 90 kide ordezkatzeko ditu.

Asiako eta Pazifikoko Ekoizleen Sareak 11 herrialdeetako 96 kide ordezkatzeko ditu.

Erakunde hauen parte-hartzea zuzenki lotuta dago Bidezko Merkataritza mugimenduaren orientazioarekin, baina bakoitzaren herrialdeetako eskubideak ere defendatzen dituzte eta bakoitzaren erkidegoan erreferentziatzeko eragileak dira.

Bidezko Merkataritzarako erakunde ekoizleen parte hartzea da mugimenduaren elementu eta lorpen handienetako bat. Hala ere batzuetan ezinezkoa da zenbakizko eragin positiboren bat erakustea. Hala ere, bere garrantzia funtsezkoa da, pertsonen eta erakundearen eraikuntza autonomo eta boteretsuetan zerikusia duelako. Laburbilduz, mundu justuago baten alde borrokan jarraitzeko posible egiten duten prozesuak eraikitzen dituzte.



© FAIR TRADE ADVOCACY OFFICE

## ■ BIDEZKO MERKATARITZAKO ESTATU KOORDINAKUNDEA



Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (CECJ) 1996an sortu zen Espainian. Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen barruan dago eta 29 erakundeak osatzen dute. Erakundeak akreditatzeaz eta Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeak onartutako sistemari jarraiki, ezarritako irizpideak betetzen dituztela ziurtatzeaz arduratzen da. Erakundeetako kideek osatutako zuzendaritza-batzorde batek agintzen du eta ekipo teknikoa dute jarduerak egiteko.

CEJ-ek zerbitzuak eta laguntza eskaintzen die erakunde kideei, beraien arteko komunikazioa eta koordinazioa bideratuz, gainera. Gainera, jarduerak, jardunaldiak eta topaketan antolatzen ditu gai komunak eztabaidatzeko eta mugimendu guztiak partekatutako jarduerak bilatzeko.

Beste helburuetako bat Bidezko Merkataritzaren inguruan ikertzea eta ezagutza sortzea da. Egiten dituen argitalpenen artean aipatu beharra dago Bidezko Merkataritzaren Koadernoak saila eta salmenten urteko txostenak, sektorearen eboluzioaren ikuspuntu eguneratua emateko. Gainera baliabide-zentro bat<sup>51</sup> du bere webgunean. Bidezko Merkataritzan eta kontsumo erantzulean espezializatutako biblioteka bat du 500 argitalpen, material didaktiko eta kanpaina baino gehiagorekin.

Koordinakundeak mugimendua ordezkatzeko du estatuko eta nazioarteko erakundeen aurrean, elkarrizketarako duen gaitasuna indartuz. Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna ospatzeak jarduerak ospatzen ditu eta beste gizarte-mugimenduekin harreman hitzarmen estrategikoak lortzea sustatzen ditu.

Hedapenari dagokionez, komunikabideei informazio eman, prentsa-oharrak idatzi eta kazetariak biltzen ditu egiten dituzten ekimenetara joateko. Gizarte-sareak dira CECJ-k Bidezko Merkataritza hiritarrei gerturatzeko duen beste modu bat, bertaratu beharreko ekimenak ahaztu gabe, hala nola, hitzaldiak, eztabaidak edo erakusketak.

Azkenik, Bidezko Merkataritza bizi garen gizarte- eta ekonomia-sistema aldatzeko funtsezko tresna (eta ez bakarria) dela ulertuz, gure helburu eta balio berdinak dituzten beste sare batzuekin elkarlanean aritzen gara. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS), FIARE (Banca Ética) edo SINADURA dira horietako batzuk, gainera Kontsumitzaileen Elkarte Nagusia bezalako (ASGECO) lankidetzak hitzarmenak sinatzen ditugu. Aurrean ditugun erronkei aurre egiteko modu bakarra elkarrekin lanean jarraitzea dela badakigu, z taldeko proposamenak sustatzen jarraituko dugu, Bidezko Merkataritzaren eta Ekonomia Solidarioaren irizpideei jarraiki, Planeta hau guztiontzako toki erosoago eta justuago bat izatea lortzeko asmoarekin.



© IDEAS

51. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea. Baliabide-zentroa. [comerciojusto.org/centro-de-recursos](http://comerciojusto.org/centro-de-recursos)

## 4

# EGIN BAT BIDEZKO MERKATARITZAREKIN!

Modu asko daude Bidezko Merkataritza mugimenduarekin bat egin eta haren hazkundera bultzatu eta laguntzeko. Izugarritzko indarra dugu gizartea aldatzeko, baina oraindik bide handia dugu egiteko. Eta modu asko daude gutako bakoitzak lagundu ahal izateko. Animatzen zara? Jarraian zehazten dizkizugu laguntzeko dituzun modu desberdinak zeintzuk diren.

## BIDEZKO MERKATARITZA LAGUNTZEKO 10 MODU

1

**EROSI BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUAK.** Horrela modu zuzenean lagunduko diezu ekoizleei beren lanetik modu duin batean bizitzen eta beraien erkideetako gizarte-baldintzak hobetzen. Kontsultatu espezializatutako denda fisikoak eta online dendak. Geroz eta gehiago aurkitzen dira baita ere, ziurtagiria duten elikadura produktuak, belar-dendetan, elikagai ekologikoak saltzen dituzten dendetan, supermerkatuetan, merkatal-guneetan eta ostalaritza-establezimenduetan.



2

**HEDATU BIDEZKO MERKATARITZA** senideen, lagunen, zure erakundearen eta zure lanekoen artean... Blog bat edo webgune bat baduzu banner bat ipini edo Bidezko Merkataritzari buruz idatz dezakezu. Gizarte-sareak ere hedatzeko komunikabide bikaina dira. Jarrai iezaiozu Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordinakundeari eta hura osatzen duten erakundeei eta lagun iezaguzu informazioa hedatzen.



3

**EGIN ZAITEZ BOLUNTARIO.** Bidezko Merkataritzan espezializatutako dendak pertsona boluntarioen laguntzari esker funtzionatzen dute. Salmenta puntuak antolatzen ere lagun dezakezu Bidezko Merkataritza pertsona gehiagori iristeko. Aurkitu zure beharrei eta ahalbideei ondoen egokitzen den espazioa eta parte hartu.



4

**LAGUNDU KANPAINETAN.** Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordinakundea eta haren erakunde kideek hiritarren laguntzaren beharra duten kanpainak dituzten abian eta jendearen beharra dute horiek hedatzeko eta laguntzeko.



5

**EGIN ZAITEZ ERAKUNDEREN BATETAKO KIDE.** Ekonomikoki laguntzea ezinbestekoa da Bidezko Merkataritzako erakundeek beren lana egiteko nahikoa bitarteko eduki ditzaten. Baina kide egiten bazara askoz ere gehiago lagunduko duzu, izan ere mugimendua sustatzen duen gizarte-oinarria indartzen lagunduko baituzu eta gure ahotsak pisu gehiago izango du gizartearen babesa edukitzean.



6

**BIDEZKO MERKATARITZARI BURUZKO INFORMAZIOA EMAN.** Kazetaria bazara lagun iezaguzu Bidezko Merkataritza eta bere potentziala hedatzen gizarte hobea eta justuago bat lortzeko eraldaketa bultzatzeko. Bisitatu Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundeko webguneko Prentsa Aretoa gunea eta eska iezaguzu behar duzun informazioa.



7

**ANTOLATU BIDEZKO MERKATARITZARI BURUZKO HITZALDIK ETA JARDUERAK.** Irakaslea bazara hitzaldiak eta bestelako jarduerak antolatzen lagun zaitzakegu eta behar izanez gero ikasgelan Bidezko Merkataritza azaltzeko material didaktikoamango dizugu.



8

**SALDU BIDEZKO MERKATARITZAKO GAIK ZURE DENDAN EDO OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAN.** Horretarako, erakunde inportatzaileekin harremanetan jarri beharko zara, beraiek banatzen baitituzte produktuak.



9

**ENPRESA BAT BADUZU, merchandisinga,** enpresako opariak edo catering-ak Bidezko Merkataritzako produktuak erabiliz egin ditzakezu. Kafea eta Bidezko Merkataritzako beste produktu batzuk ezar ditzakezu zure enpresako kafetegian edo makinetan.



10

**ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN LAN EGITEN BADUZU,** Bidezko Merkataritza sustatu dezakezu, erosketa publiko etikoaren irizpideetan sartzeko, hedapen jarduerak antolatuz, e.a. Sentsibilizazio jarduerak sustatzeko eska dezakezu zure Udaletxean, hala nola, Bidezko Merkataritzaren Mundu eguna, edo Bidezko Merkataritzako produktuen erosketa sustatzea, Administrazio erosketetan eta kontratuetan irizpide etikoak erabiltzen hasiz.



“Bidezko merkataritza elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarrituriko sistema komertzial bat da, nazioarteko merkataritzan zuzentasun handiagoa lortu nahi duena, gizartearen eta ingurumenaren inguruko irizpideetan arreta berezia jarrita. Lagungarria da garapen iraunkorrean, baldintza komertzial hobeak eskainiz eta egoera ahuleko ekoizleen eta langileen eskubideak ziurtatuz, Hegoaldean bereziki.”

## Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen definizioa



### Jarraiguzu:



[www.facebook.com/CEComercioJusto](http://www.facebook.com/CEComercioJusto)



[@CEComercioJusto](https://twitter.com/CEComercioJusto)



[www.linkedin.com/company/coordinadora-estatal-de-comercio-justo](http://www.linkedin.com/company/coordinadora-estatal-de-comercio-justo)



[CEComercioJusto](https://www.youtube.com/CEComercioJusto)

### Laguntzaileak:



cooperación  
española